




**Udabiltzaren auziaz
Oskar Goñirekin**

03

Udabiltzaren kontrako auzia hasi zenetik bortz urtera, epaiketaren zain daude 22 inputatuak. Horien artean dago Oskar Goñi beratarra.



**Noela Ariztia judoka
bigarren Espainian**

28

21 urteko doneztebarra bigarren izan da Espainiako judo txapelketan, 23 urtez azpiko eta 63 kiloz beheitikoetan. Lehen aldiz nazioartean lehiatzeko txartela lortu du.

2008ko maiatzaren 15a • XXVIII. urtea
www.ttipi.net



JANTOKI ZERBITZUA NAHI DUTE ESKOLA TTIKIEK ERE

04

Eskualdeko haurren erditsuak egunero ikastetxean bazkaltzen du



ORDOKI
altzariak

ERAKUSKETA: Bittiria 26
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27
Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA



KANPINGAGSERAUKEZTEN DU:

Hor al zaude

ZUZENDARIA: JOSEBA APAOLAZA



Ainhoa Aierbe



Asier Hormaza

ANTZERKI EMANALDIA BERAN

Eguna: maiatzaren 24a, larunbata

Ordua: 22:00etan

Lekua: Berako Kultur Etxea

Sarrera: 7€

(egun bereko 21:00etatik aitzinera salgai)

Antolatzailea:

Laguntzaileak:



REGULA
JAVIER DAULTE
JULIA MARIN

DATUAK...

- Apirilaren 29an bete ziren bortz urte Espainiako Auzitegi Nazionaleko Baltasar Garzon epaileak Udalbiltzaren kontrako auzia abiatu zuenetik.
- Bortz urte beranduago auzipetutako 22 lagunak epaiketaren zain daude, tartean eskualdeko bi: Oskar Goñi beratarra eta Jasone Astibia zubietarra. Fiskalak 10 urtetik 23ra bitarteko espetxe zigorrak eskatzen ditu inputatuentzat.
- 5. urteurrena gogoan, hitzaldia egin zen apirilaren 28an Narbarte-ko Herriko Etxean, eta elkarretaraztea hurrengo egunean Etxalarren.



Oskar GOÑI Udalbiltzako auzipetua

ARGAZKIA: G. PIKABEA

«Madriletik datorrena txarra edo hagitz txarra izaten delako itxaropen ttikia dugu»

Aitor AROTZENA

Nola gogoratzen duzu orain dela bortz urte gertatutakoa?

Oraindik ongi gogoan dut. Ahazten saiatu arren nahiko pasadizo latza izan zen. Zoritxarrez Euskal Herrian goizeko ordu tikietan etxeko atea botatzen dute-nean, badakizu ez direla lagunak, juergara joateko etortzen direnak. Bertzelako bisita izaten da. Atxilotu eta inkomunikatu gintuzten, Madriler a eraman. Eta-kide izatea leporatzen digute, gure jardun politiko eta publiko nabarmenagatik. Urtebete pasatu genuen espetxean eta orain berriz esperoan gaude.

Zein zen Udalbiltzaren lana duela bortz urte eragotzi zuten arte?

Euskal Herrian Udalbiltzaz gain ez dago nazio instituziorik, arlo politikoan lan egiten duenik. Gure lana lurralde zatiketa honen gainetik, Euskal Herriko hautetsi guztien arteko elkarlana bultzatzea zen, batez ere kultur arloan, euskara... Arlo sozioekonomikoan, adibidez, *Xi-beroa garatzen* izeneko ekimen polita egin genuen. Herritarren borondatez hainbertze diru bildu zen, eskualde horretako enpresei laguntza emateko eta Euskal Herriko eskualde ezberdinen

«Entzutegi Nazionalaren arabera, ETaren helburuarekin bat egiten duena ETA da. Horrekin nahi dutena egiten dute. Defentsa juridikoa zaila da, zigortzen dena tesi politikotik abiatzen delako»

artean lan harremana bulkatzeko. Guztia bere horretan gelditu zen, eta han bildu ziren milioika pezetak Entzutegi Nazionalak bere esku hartu zituen. Haiek eta guk ordaindu behar izan genituen 30.000 euroko bermeak. Ordainduta eta astero sinatuta hemen gaude. **Zein egoeratan zaudete auzipetuak?** Egoera nahiko larrian. 22 inputatu gara eta gehienak hautetsiak. Bizpahiru kasu ere badira hautetsiak izan gabe inputatutak. Bitxia da baina Udalbiltzak dei publikoa eginez sortutako lanpostu batzuetara aurkeztu eta hautatu ziren ere auzipetuak daude, zama politikoarekin loturarik ez zuten langileak. Gure kasua ere larria da, hautetsiak garelako. Nire kasuan, adibidez, Berako zerrendan laugarrena nintzen, eta bortz atera ginen. Hauteskunde emai-

tzak bertzelakoak izatera, agian ez nintzateke hemen egonen. Herritarrek euren botoz aukeratutakoak ginen, Herriko Etxeetan lanean aritzen ginenak, eta tarteka bertze ikuspegi batekin elkar-tzen ginenak, uste dugulako Euskal Herria nazioa dela eta elkarrekin lan egiteko beharra badagoela. Hori da gure ustez zigortu nahi dena. Entzutegi Nazionalak tesi bat jarri du indarrean eta horren arabera ETaren helburuarekin bat egiten duena ETA da eta horrekin nahi dutena egiten dute. Defentsa juridikoa zaila da, zigortzen dena tesi politikotik abiatzen delako.

Epaiketaren zain, zein esperantzarekin zaudete?

Itxaropen ttikia. Madriletik etortzen dena txarra edo hagitz txarra izaten dela pentsatzen dut nik, euskaldunoi eskarmentuak hori erakutsi baitigu. Nik behintzat ez dut datu objektibo gehiegirik ikusten kontrakoa pentsatzeko. Edonola ere, Udalbiltza bidezkoa eta beharrezkoa dela uste dugu, eta beldurra eta oztopo guztien gainetik, Udalbiltzan parte hartu eta halako ekimenak bultzatzen saia daitezten deia eginen da.



Goizuetako Xalto eskolan 24 hurrek bazkaltzen dute jantokian.

ARGAZKIA: MAITANE APEZETXEA

Jantoki zerbitzua lortzeko borrokan eskola ttikietan

Eskualdean dauden 31 ikastetxeetatik 16tan dute jangela

Ikastetxe aunitzen borroka izan da urteetan jantoki zerbitzua eskaintzearena, eta oraindik ere hala izaten segitzen du. Liskar hortan murgildua dago Zugarramurdiko Guraso Elkartea. Zugarramurdikoa, ordea, ez da eskualdeko esperientzia bakarra. Hilabeteetan harat eta honat ibili ondotik, urte honekin paratu zuten martxan jangela Sunbillako eskola. Nafarroako Gobernuaren bidez egitea garestiegia zela ikusi, eta Guraso Elkartea eta Udalaren arteko elkarlanaren emaitza izan zen. Bi jantoki zerbitzu mota daude Nafarroan. Alde batetik, Hezkuntza Sailak antolatzen duena, bazkaltzera etxera itzultzeko aukerarik ez dutenentzat. Horiek dirulaguntza jasotzen dute Nafarroako Gobernutik. Bertzetik, berriz, Gurasoen Elkarteek antolatzen dituzten jantokiak daude. Batzuek dirulaguntza jasotzen dute, baina batzaz bertze, 3,54 euro ordaintzen dute egunean. Bietako kasuak daude eskualdean. Zugarramurdi eta Sunbillako adibideez gain, Iruritan ere jantokia ireki nahi da: Gizarte Bilgunean izanen da, baina afera airean dago oraindik. Almandozen eta Arizkunen ere mugitzen hasiak dira.

Gurutze PIKABEA

Azkenaldian, ikastetxean bazkaltzen duten haurren kopurua hazi egin da. Dagoeneko gure eskoletan ari diren 2.331 gaztetxoetatik %43,76ak ez du etxean bazkaltzen, eta urtetik urtera zifra hori haundituz doa. Halere, eskualdeko ikastetxe aunitz jantokirik gabe daude. Baztanen, erraterako, Elizondoko San Francisco Javier eskola eta Baztan Ikastola alde batera utzita, Amaiurren bakarrik dago eskolan bazkaltzeko aukera. Hortik haratago, zerbitzua bera eskaintzea ez da merkea.

SUNBILLAn, adibidez, bide merkeena joratu nahian erabaki zuten gurasoek euren aldetik zabaltzea jantokia. Udalaren laguntzarekin INEMetik sukaldaria kontratatu zuten, eta hala, %80a subentzionatzen diete Enplegu Bulegotik. Gainerako %20a, berriz, Udalak bere gain hartzen du. Nafarroako Kutxaren *Zeuk aukeratzen duzu, zeuk erabakitzen duzu* proiektuarekin ere jaso zu-

Ainhoa ETXEBESTE *Sunbillako Udaleko zinegotzia eta gurasoa*



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

Noiz hasi zineten jantoki zerbitzua eskaintzeko trantemiteekin?

Pentsatzen orain dela bi urte edo hasi ginen. Hasiera hartan ez genekien nondik hasi ere, eta Nafarroako Gobernura jo genuen. Baina bide hartatik egiteak gastu handiegia ekarriko lukeela eta, bere hortan utzi eta gure aldetik egitea erabaki genuen. Udalak lokala utzi zuen eta INEMekin harremanetan jarri ginen. Udala bezala langilea kontratatuta dirulaguntzarik jaso ote genezakeen galdetu genuen, eta baiezkoa eman ziguten. Gastuaren %80a INEMen laguntzarekin bideratzen da eta gainerako %20a Udalak ematen du.

Horrez gain, gurasoek ere lan handia egin dute jantokia egiten.

Gastu handia izan da?

Guztira 24.992 euroko gastua izan da, hori langilearen gastuak kontutan hartu gabe. Nafarroako Kutzaren *Zeuk aukeratzen duzu, zeuk erabakitzen duzu* programaren bitartez ere laguntza jaso da. Jendeak erantzun ona eman du.

Nolako harrera izan du jantokiak?

Ona, kontent gaude, eta jendea ere gustura dago. Orain arte, jantokirik ez zegoelako haurra Donezteben matrikulatu duen haur baten gurasoak ere erran digu heldu den urtetik aitzinera Sunbillara eto-

rriko dela. Jantokirik ez, eta jendea Doneztebera joaten zela ikusteak pena ematen zigun...

Jangelak zenbait baldintza bete behar ditu. Diestista batek diseinatutako menua eskaintzea, adibidez.

Gure kasuan bertze jantokietako menuak eskatu genituen, pediatrik eginak direla jakinda, eta horrekin moldatu gara.

Jantokia lortu nahi dutenei aholkuren bat?

Zonaldean haur aunitz daude jantoki zerbitzurik gabe, eta guk egin duguna egitea litzateke irtenbide bat. Baina horretarako Udalak ere prest egon behar du. Guk bertze aukerarik ez genuen ikusi; haur aunitz izanez gero, diferentea da egoera, baina gutti izanik ez da aukera aunitzik gelditzen.

«Jantokirik ez, eta haurrak Doneztebera joaten zirela ikusteak pena ematen zigun»

ten dirua. Urtarrilaren 7an ireki zituen Sunbillako jangelak atek lehenbizikoz. Beheko eskolan dago eta Guraso Elkartea kontent dago izandako erantzunarekin.

Sunbillan badute jantokia, **URDAZUBI** eta **ZUGARRAMURDI**n, ordea, ez. Hori lortzeko bidean, hitz egin digu Iruñe Soto Guraso Elkarteko kidearekin. Bere hitzetan, oraindik *«intentzioa baino ez da, baina baikor pentsatuz gero, eginen dela uste dugu»*. Bi herrietako haurrak bi eskolatan banatuak daude, eta goiz, eguerdi eta arratsaldetan haurrak jasotzeko autobusa dute. Jantokia egitekotan, Gobernuak eguerdiko autobusa kenduko diela iragarri du, eta horrek, noski, kezka eragin die. Zugarramurdiko eskolaren goiko solairuan egin nahi da jantokia eta *«baliteke toki arazoak ere sortzea»*. Baina egitekotan, *«orain pentsatzen ari garen egoeran, Gobernuaren laguntzarik gabekoa izanen da hasieran behinik behin, legezatzareana zail ikusten baitugu»*. Aipatu solairua Udalarena da eta *«jantokia ez legezkoa izateak urduritasuna sortzen duela»* ere iritzi dio Sotok. Baina beharra badago, 12 urtetik beheitiko haurren artean egindako inkestak ere halaxe frogatu baitu.

IRURITAn ere jangelarena airean dago. Hasiera batean Iruñera joan ziren dirulaguntzarekin jantokia irekitzeko asmoz. *«Baina eskolan bertan egin nahi genuen galdetu ziguten, eta guk ezetz, eskolan ez dugula tokirik»*, azaldu digu Cristina Urtasun Irurita-ko Guraso Elkarteko kideak. Horregatik erabaki zuten Gizarte Bilgunean egitea. Gobernuari egindako eskaera bere horretan gelditu zen, eta eskola berria egin artean laguntzarik gabe aitzinera egitea erabaki zuten. *«Gizarte Bilgunea bere gain hartu nahi duenarentzat deialdia zabaldu genuen, eta elizondar batek eman du izena»*, dio Urtasunek. Edonola ere, bere gain hartzekotan, eskolakoei bazkaria berak ematea litzateke baldintza bakarra. Erantzunaren zain daude Iruritan, baina arduraduna bat edo bertze izan, jantoki zerbitzua eskainiko dutela aipatu digute.

IKASTETXEA	IKASLE KOPURUA	BAZKALDU ZENBATEK?
Almandoz IP	13	Ez dago jantokirik
Amaiur IP	20	18
Arantza IP	45	29
Areso IP	25	Ez dago jantokirik
Arizkun IP	41	Ez dago jantokirik
Arraioz IP	9	Ez dago jantokirik
Azpilkueta IP	10	Ez dago jantokirik
Baztan Ikastola	140	65
Beintza-Labaien IP	6	Ez dago jantokirik
Bera (Jesusen Bihotza)	89	40
Bera (Labiaga Ikastola)	135	73
Bera (Ricardo Baroja IP)	143	100
Doneztebe (San Migel)	454	291
Elizondo (San Fco J. IP)	258	127
Erratzu IP	24	Ez dago jantokirik
Etxalar (Landagain IP)	51	28
Gartzain IP	14	Ez dago jantokirik
Goizueta (Xalto IP)	69	24
Igantzi IP	58	27
Irurita IP	55	Ez dago jantokirik
Ituren IP	48	30
Legasa IP	7	Ez dago jantokirik
Leitza (Erleta IP)	212	40
Lesaka (Irain IP)	136	70
Lesaka (Tantirum. Ikast.)	103	45
Narbate IP	24	Ez dago jantokirik
Ornoz-Mugairi IP	37	Ez dago jantokirik
Saldias IP	5	Ez dago jantokirik
Sunbilla IP	50	13
Ziga IP	18	Ez dago jantokirik
Urdazubi-Zugarram. IP	37	Ez dago jantokirik
Guztira	2.331	1.020

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemakalariak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarrea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

2008ko harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	34 €
Espainia	34 €
Sara (La Poste)	52 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika eta Australia	115 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	27 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Berako Herriko Etxetik

Kiroldegi ondoko etxea dela eta, Udalari egindako kritikari erantzunez lerro pare bat idatzi nahi ditut. Udaletxean mozio bat aurkeztu genuen proiektu hau aldatzeko aukerak aztertu, baloratu eta ondoren erabaki bat hartzeko. Mozioa ez zen aurrera atera gure taldekoek (EAE-ANV) bakarrik babestu genuelako. Gainerako guztiek ezezkoa eman zioten. Ezezkoa emateaz gain, guri leporatu ziguten interes elektoralistekin erabili genuela gaia. Orain eraikina ikustean, garbi ikusten da arazoa benetan larria dela eta beratar guztiei eragiten eta eraginen diela. Legezkoa den edo ez? Gaur egun legezko hitzak ez dakit erranahi haundirik duen, ikusirik pertsona batzuek ere ez dutela, ez dugula, baldintza hori betetzen.

Egia zera da, legalizatua dagoela aurreko Udalak baimen guztiak eman zizkiolako Berako arauak promotorearen mesedetan interpretatuz. Gure ustez, Berako arauetatik kanpo dago. Akatsek ikasteko balio izaten dute eta proiektu honek garbi utzi du Berako hirigintza ez zela bide honetik joaki. Udaletxean pauso egokiak ematen ari dira berriz ere horrelako txapuzarik ez aitzinera ateratzeko eta hirigintza arloan espazio publikoei eta dotazioei behar duten garrantzia emateko, hauek direlako herritarrentzat gelditzen direnak eta herriri itxura bat edo bertze emanen diotenak. Hauek defendatzea da Udalaren lana eta horretan ari gara.

Josu Irazoki
Berako alkatea

www.euskararizorzaiona.info

euskarari zor zaiona

declárate por el euskara

OINARRIAK

ERRATS oihalak

Agerra- Sara, 6 • BERA
Tfnoa.: 948 630 620

DESKONTUAK
%20 %30 %50

- OIHALAK:
 - Estarpatuak
 - Zetazkoak
 - Haritzkoak
- Lentzeria
- Haur eta Gizonen azpiko arropak
- Mertzeria
- Toallak
- Mairidreak

UDABERRI-UDAKO ESKAINTZA

carroba
garrantziak

17/20 Estreñena 25 bako 1948 63 08 99
94902 6063 (www) www.carroba.net

EDARRIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

2008

XVI. GASNA eta ARTISAU en FERIA

ETXALARen ekainaren 1ean

Goltean zehar

haurrendako sormen
tailerrak plazan

10:30

Artisauen erakusketa

12:30

Herriko trikitilariak

13:30

Gasna lehiaketako
sari banaketa

14:00

Herri bazkaria

18:00

Herriko dantzarien saioa

Antolatzailea:

ALTXATA
Kultur elkartea

Laguntzaileak:



GIZARTEA

Senda Fundazioak bere zerbitzuen berri emateko hitzaldia eskainiko du

Maiatzaren 28an izanen da Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean

ttipi-ttapa

«Irakurtzen, idazten, gehitzen eta biderkatzen ttikitatik erakusten digute, egunerokoan ezinbertzekoak diren zerbait bailiran. Aitzitik, inork ez digu erraten nola senti gaitezkeen eta zer egin dezakegun maite dugun norbait galtzen dugunean». Halaxe dio Senda Fundazioaren artikulatu batek, dolumina bizi dutenei laguntzea baita bere egitekoa.

Irabazi asmorik eduki gabe, aspalditik ari da Senda Fundazioa dolumina sentitzen dutenei laguntzen. Egunerokoa oraindik ere gizarte-an tabua izaten segitzen du heriotzak, eta hori normalizatzea da Senda Fundazioaren helburu nagusienetarikoa. Horretarako hainbat ekintza egiten dituzte: heziketa tailerrak, solasaldi informatibak... Guztia terapeuten bitartez. Interneten ere eskaintzen dute laguntza, www.sendafun.org helbidean.



Solasaldia Elizondoko Arizkunenean izanen da maiatzaren 28an, 18:30etik aitzinera.

Tabu hori gainditzeko beharra badagoela irizita, maiatzaren 28an, asteazkenarekin, Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean solasaldia eskainiko dute fundazioaren zerbitzuen berri emateko. Hartara, beharra sortuz gero, eskualdean dola talde berri bat sortuko luketela iragarri dute. Hitzaldia 18:30ean hasiko da.

Iruñeko Goizargi eta Irache Tanatorio Taldearen ekimenez sortu zen Senda Fundazioa, dolumina dutenek sentitzen dutena bertzeekin konpartitzen ikasi eta bide batez, euren egoera psikologikoa eta soziala hobetu ahal izateko. Fundazioaren ustetan, «norbaitek entzuten direla jakiteko beharra du, ulertuak eta babes-

tuak direla ikusteko beharra». Urteen joanean bortsu dola talde sortu dira eta horietatik bat Lezakan biltzen da, Udalen Erabilera Anitzeko Aretoan. Zortzi eta hamar lagun arteko taldeak izaten dira, aditu talde batek zuzendutakoak, eta behararen arabera, astero edo bi astetik behin elkartzeko dira.

ERREPIDEAK

Istripu larria Igantzin N-121Ako obretan

ttipi-ttapa

Istripu larria gertatu zen apirilaren 30 goizean N-121Ako obretan. Igantzin izan zen ezbeharrak, Igantziko Bentetatik Sunbilarako bidean. Antza, altueran lanean ari zen kamioia irauli egin zen, eta behegian lanean ari zen hondeatzeko makinaren gainera erori zen. Barrenean zegoen behargina harrapatua gelditu zen eta suhiltzaileek erreskatatu behar izan zuten. Behin erreskatatuta, hondeatzeko makinako langilea larri zauritua eraman zuten Nafarroako Ospitalera helikoptero batean. Kamioi gidaria, berriz, Irungo ospitalera eraman zuten. Istripuaren ondorioz, trafikoa moztua egon zen eta auto ilarak sortu ziren bi noranzkoetan.

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bititria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

ATM S.A.

AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS S.A.

Igantziko bentak
948 63 74 11

- Txapa mozketak eta tolestak 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Garraioak zintak eta mahaia
- Mantenu rodilloak

BERA

Abian da Mugaz Gain Gazteentzako antzerki jaialdiaren XIV. edizioa

Maiatzaren 29an eta 30ean izanen dira hurrengo saioak

ttipi-ttapa

Mugaz Gain Antzerki Jaialdiaren XIV. edizioa hasi da dagoeneko. Maiatzaren 8an eta 9an abiatu zen, eta hilaren 29an eta 30ean izanen du segida. Haur eta gazteen topaleku bihurtua da jaialdi hau, bertako eta inguruko lanen erakusleihu, eta aurtan ere halaxe izanen da. Lehen saioetan, Iruñeko Iturruma Institutuko ikasleen eta Bazen behin clown talde amateurraren txanda izan zen. Maiatz hondarrean, berriz, eskualdeko gaztetxoak izanen dira protagonistak:

Maiatzak 29, ortzeguna 10:00etan

- *Gure ipuina* (Ricardo Baroja, 2. maila).
- *Tren bidaiariak* (Jesusen Bihotza, 2. maila).

Maiatzak 30, ortzirala 10:00etan

- *Mapa eroaren bila* (Labiaga Ikastoka, 5. maila).
- *Hegoaldetik Iparraldera bakearen bila* (Igantzikoko eskola; 3, 4, 5, 6. maila)
- *Parisko ametsa* (Ricardo Baroja, 5. maila).

Horrez gain, edozeinek ikusteko moduan, ateak zabalik ere eskainiko dira antzerkiak:

Maiatzak 29, ortzeguna
18:30ean *Tren bidaiariak* eta *Gure ipuina*.

Maiatzak 30, ortzirala
18:30ean *Parisko ametsa* eta *Mapa eroaren bila*.

'Sartaguda 1936. Alargunen herria'

Kultur Batzordearen ekimenez, Sartagudaren historiari buruzko liburua aurkeztuko dute maiatzaren 23an Liburutegian. *Sartaguda 1936. El Pueblo de las Viudas*. Halaxe du izena Fernando Mikelarena beratarren eta Jose Maria Jimeno Jurio zenaren lanak. 1936ko gerraren ondorioz, fusilatu gehien jasan zituen herria izan zen Sartaguda, eta horregatik deitu izan diote alargunen herria. Horrez gain, 1919 eta 1923 urteen artean eta Errepublikara garaietan sortutako tirabirak eta tentsioak ere ageri dira liburuan. 19:30ean hasiko da ekitaldia.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bortzirietatik Italiara eta Italiatik Bortzirietara
From the Pyrenees to the Alps programaren barne, ingelesa praktikatzeko elkartrukatzeko proiektua egin dute aurtan Toki-Ona institutuko DBH 4. mailako ikasleek Italiako Caravaggio herriko Galileo Galilei lizeoko ikasleekin. Apirilean Toki-Onako 13 ikasle Italiara joan ziren, eta bertzeak bertze, Venezia, Milan eta Bergamo hiriak bisitatu zituzten. Berriki, berriz, maiatzaren 7tik 14ra italiarrak egon dira gurean, 16 guztira. Eskualdeko herriak ezagutzeaz gain, Iruña, Donostia eta Bilbon barna ere ibili ziren. Esperientzia hau ez da guztiz berria izan Toki-Onarentzat, izan ere, 2006-2007 ikasturtean elkartrukatzeko birtula egin zuen, hau da, Internet bidez Caravaggioko ikastetxeko ikasleekin harremanak mantendu zituzten. Aurtan, berriz, birtualetik fisikorako saltoa egin dute. Argazkia Italian egingandako egonaldian ateratakoa da.

'Berria'k 5 urte

Ekainaren 21ean birtualitatearen bidez BERRIA egunkaria sortu zenetik. Jai handia iragarri dute egun horretarako, baina bitartean, hainbat ekitaldi egingo dira Euskal Herriaren barna, eskualdezkotik. Baztan, Mallerreka eta Bortzirietako ekitaldia, maiatzaren 7an egin zen Kultur Etxean. BERRIA sortzen herritarrek egindako lana eskertzeaz gain, aitzinera begirako proiektuak aurkeztu zituen Martxelo Otamendi BERRIAko zuzendaria. Ondotik egindako

mokaduekin eman zioten akabera ekitaldiari.

Gure Txokoa maila bat beherago

Erregionaleko lehen mailari eustea zen Gure Txokoako futbol talde nagusiaren helburuetako bat, baina ezinezkoa izan da, eta heldu den denboraldian maila bat beherago jokatu behar du, Gipuzkoako Erregionaleko bigarren mailan. Maiatzaren 1ean Lesakako Mastegi futbol zelaian Beti Gazteren kontra jokatutako Bortzirietako der-

bian erabaki zen taldearen etorkizuna. Markagailuan aitzinetik paratu baldin bazen ere, azkenean Beti Gazte nagusitu zen, 2 eta 1. Gure Txokoak nahitaezkoa zuen garaipena kategorian mantentzeko, baina kale egin zuen.

Musika entzunaldia

Isidoro Fagoaga Musika Eskolak antolatuta, biolin, klarinete eta saxofoi entzunaldia egingo da heldu den astelehenean, maiatzak 19, Musika Eskolan. 17:00etan hasiko da kontzertua.



LESAKA

Musika Banden Alardea egingen da maiatzaren 17an

Herrikoarekin batera, Garinoiain eta Araiakoa bilduko dira

Aitor AROTZENA

Musikazaleek gozatzeko aukera ederrak dituzte hilabete honetan. Errate baterako, larunbat honetan, maiatzaren 17an, Musika Banden Alardea antolatu du herriko bandak, Udalaren laguntzaz. Herriko musika bandarekin batera, Garinoiain (Nafarroa) eta Araiakoa (Ara) izanen dira. 17:30ean aurreko batekin egingen zaie ongi etorria bandei. Segidan kalejira egingen dute, bakoitzak bere bidetik eta azkenik, banda bakoitzak kontzertu tiki bat eskainiko du plazan. Musikariak afaltzera bilduko direla ere aipatu digu Mikel Iriarte, Lesakako Musika Bandako zuzendariak.

Hurrengo larunbatean, maiatzaren 24an, ikasleen arteko txapelketa antolatu du Musika Eskolak, bere lehen musika ekitaldiaren barruan. Txapelketa udaletxeko pleno aretoan egingen da.

Bertzetik, aitzineko alean aipatu genuen bezala, akordeoilari taldea bere 25. urteurreneko

ospakizunetan ari da. Joan den larunbatean emanaldi bikaina eskaini zuten 25 urte hauetan taldetik pasatu diren akordeoilariak, lehenik kalejira eta gero kontzertuan. Maiatzaren 31n, berriz, Enrike Zelaiak eta Iñaki Dieguezek kontzertua eskainiko dute Onin erreka gainean, 20:15ean.

Haurrentzako eskulan tailerra

Birbira taldeak haurrentzako eskulan tailerra eskainiko du maiatzaren 31n, 11:00etatik aitzinera, komentuko zelaian. Arrano elkarrekin antolatu du ekitaldia, Udalaren laguntzarekin.

Guraso Eskola

Iraingo Guraso Elkarrekin antolatutako *Oinarriko trebetasunak eta bizipen emozionala seme-alaben hezkuntzan* ikastaroa ematen ari da Marta Aristu maiatzeko asteartean. Hurrengo saioak maiatzaren 20an eta 27an izanen dira, udaletxeko pleno aretoan, 10:00etatik 12:00etara.



ARGAZKIAK: JUANJO GUERRERO

Beti Gazte nagusitu zen Bortzirietako futbol derbian Langileen Eguna futbol derbi eguna ere izan da aurtengoan. Erregionalekoan, Beti Gaztek 2 eta 1 irabazi zion Gure Txokoari eta honenbertzez, kategoria galdu du Berako taldeak. Goizean beteranoek jokatu zuten eta hemen ere 6-0 nagusitu ziren lesakarrak. Hori bai, goizean nahiz arratsaldean, bazkarian eta afari-berenduan bilduak akautu zuten bi herrietako futbolariak, egun osoko kiroltasunaren erakusgarri.



ARGAZKIA: JUANJO GUERRERO

Rafa Maritxalar nagusi «bere» herri lasterketan

Aurten ere Rafa Maritxalar nagusitu da Batzoki elkarteak antolatu eta bere izena daraman herri lasterketan. Azken esprintean Antonio Bru bertarrari nagusitu zitzaion, argazkian ageri denez. Eric Vignole saratarrak osatu zuen podiuma. Emakumezkoetan Rosi Talavera gailendu zen. Aurrenejamien mailatik hasi eta beteranoak bitarte 186 korrikalarik parte hartu zuten. Hauetaz gain, sei urtez beheitiko neska-mutiko aunitzek egin zuten ehun metroko lasterketa. Edozein talde eraman zuen federatu gabeko talde onenari eramandako bildotsa.



ETXALAR

Etxalarko Lehenbiziko Frontenis Txapelketa antolatu dute gazteek

Mendiaren inguruko hitzaldia eta ateraldia eginen dira maiatzaren 24an

Joseba eta Nerea

Herriko gazteek antolatuta, maiatz hasieran hasi ziren frontenis txapelketako lehenbiziko partidak. 18 bikotek eman dute izena eta bi talde-tan jokatuko dituzte partidak, denak denen kontra. Finala talde bakoitzeke bi onenek jokatu dute. Mutil eta neskontzako irekia bazegoen ere, mutilek bakarrik eman dute izena. Udar bitartean luzatuko da, eta irabazleek «sari ederra» izanen dutela erran digute antolatzaileek.

Hitzaldia eta ateraldia mendira

Hurrengo larunbatean, maiatzak 24, mendiaren eta zuhaitzen inguruko hitzaldia eman dute Kultur Etxean Nafarroako Arbol Zaharren Elkartekoek. Zuhaitz zaharren katalogazioa nola egiten duten eta ekologikoki duten balioaz solastuko dira, 10:00etatik aitzinera. Hitzaldia akabatuta, Altxata ingurura

mendi ateraldia eginda, teoria praktikan ikus-tera. Edozeinek parte har dezake bai hitzaldian, bai ateraldian ere.

Argazki zaharren bilduma

Edure Elizagoien eta Maite Irisarri duela hamar-kada batzuetako

Etxalarko argazkiak bildu eta, bilduma bat osatu eta erakusketara egiteko helburuarekin. Etxez-etxe dabilta, edozein gairen inguruko argazkiak biltzen; bestak, inauteriak, eskola, base-ria, jaunartzeak, koadri-lak, ezkontzak... Edozein argazki balio du.

Herriaren historiaren zati bat bildu, eta altxor bat gordetzea da helburua.

Aldaketak USOA kooperatiban

Apirilaren 19an Usoa kooperatibak urteroko Batzar Orokorra egin zuen. Junta-berritzearen gaia mahai gainera

atera zenean, hainbat aldaketa izan ziren. Orain arte zeuden hiru kideak junta utzi zuten; Klaudio Espelosin, Juan Bautista Mitxelorena eta Jaione Eugik. Hauen orde-z, Joxe Angel Goienetxe eta Periko Berrueta sartu ziren. Hirugarren ordezkoa falta da, eta batzar berezi batean aukeratu dute. Juntako bertze kideak hauek dira: Gerardo Danboriena, Josetxo Ariztegi, Joxe Angel Ariztegi, Salvador Ansalas, Joxe Mari Olagarai, Arantxa Zubieta eta Jose Luis Iantzi lesakarra. Arantxa Zubieta orain arteko presidentea aipatu digunez «azken urteotan pen-tsuaren produkzioak eta salmentak beheti egin dute, baina 2007an salmentak egonkortzea lortu dugu, betiko bezera-ak mantentzen baititu-gu». Gasolindegia- ren martxa ona ere azpimarratu zuen: «azken urteotako apustu ga-rrantziatsua izan da».



ARGAZKIA: ARANTXA DANBORIENA

Lurritiederra auzoko bestak

Duela ez aunitz arte herriko auzo gehienetan egiten ziren 'auzoko bestak', baina urteen joanean gehienak galdu dira. Urrizkietakoekin batera, Lurritiederra auzokoak dira indar betean segitzen duten bakarrak. Joan den maiatzaren 10ean auzo-bazkari ederraren bueltan bildu ziren auzotarrak, auzoan sortutakoak eta bertze hainbat gonbidatu. 50 lagunetik goiti elkartu ziren Agerreberekobordan, jan, edan eta dantzan aritzeko.

ZJ
Zalain
 jatetxea - hostala

14 logela bainu
 eta TBrekin

Zalain auzoa s/g
 Tfnoa: 948 63 09 67
 BERA

Afargatziki 11 behea
 Tel: 943 368 781 • Fax: 943 368 781
 Mug. 671 073 888
 behetik@behetik.com • 20018 DONOSTIA

AULKI JASOTZAILEAK

ARANTZA

Dena prest da igandeko mendi itzulirako

Bertze urte batez Arantzako zirkua ezagutzeko aukera izanen da

Nerea ALTZURI

Berriz ere hurbil da bi urtetik behin egiten den ekimena. Igande honetan mendi gainetan ibiltzeko aukera izanen da. Unanu, Izu, Ibintza, Ekaitza, Illurdi, Mendaur eta Zepurun barna izanen da ibilbidea. Ekaitza Elkarrea, Udala, Gazte Asanblada eta Nafarroako Kirol eta Gazteria saila antolaketan lanetan aritu dira eta dena prest dago. Denek, ordea, ezin izanen dute egun horretan egon. Antolaketan lanetan hasieratik aritu zen Xabier Zubieta Zubi gogoan, *Ekaitzako kaxkun ikurri-nak irau denazala...* mendi itzuliko eskuorrian jarria da. Kirol atalean itzuliari buruzko xehetasun gehiago irakur daitezke.

Irteerak eskolatik

Tenorean tenoreko ateraldiak eta kanpaldiak antolatu dituzte eskolan. Apirilaren hondarreko astean, Aste Xuria programaren barne, Bortzirietako 5, 6 eta DBH 1. mailako ikasleak Izaban elu-

rretan egon ziren. Bortzirietako ikastetxeekin elkarlanean, kanpaldiak ere antolatu dira. Joan den astean, hilaren 5ean eta 6an, Haur Hezkuntzako ikasleak Pasaiaiko Piraten Etxean gaua pasatu zuten.

Aste honetan, maiatzaren 12 eta 13an, lehen zirkoko lagunak Hondarribian izan dira; eta leku berebean baina maiatzaren 21ean, 22an eta 23an bigarren zirkoko lagun taldeak egonaldia egiten dute.

Azkenik, ikasturtearen azken egunean, ekainaren 20an, autobusa hartu eta egun pasa egiten dute. Oraindik nora joan behar duten ez dute erabaki, baina seguru egun ederra pasatuko dutela.



UTZITAKO ARGAZKIA

Nafarroako Mendi Bizikletako txapelkunak

Irudian hiru txirrindulari ageri dira. Hirurak Nafarroako Mendi Bizikleta Txapelketako txapelkunak dira, maila ezberdinetan. Asier Apezetxea Conor-Saltokiko txirrindularia, eta Igantziko taldeko Beñat Txoperena eta Aitor Begino dira. Maiatzaren 3an Irurtzunen jokaturako Itxespia txapelketan hoberean izan ziren. Herrikoa den Asier elite mailan ari da eta Beñat eta Aitor, junior eta kadete mailan, hurrenez hurren. Hirurak euren mailetan lehenbiziko ailegatu ziren eta gainera, Asier Euskadiko Open Spiuk txapelketako sailkapenean liderra da oraingoz. Igandean Tolosan egitekoa zen hurrengo saio puntuagarria baina lerro hauek idazterakoan ez genuen emaitzaren berririk.

FLASH

Medikuaren kontsultako lanak

Udalak, Nafarroako Gobernua laguntzarekin, mediku kontsultaren teitlatua konpondu eta fatxada margotzeko deialdia zabaldu du. Apirilaren 2an egindako bileran onartutako baldintzen arabera, 38.731 euroko aurrekontuaren barruan egin beharko dira lanak. Epea urriaren 15ean bukatuko da, eta proposamenak aurkezteko epea, berriz, hilaren 8an bukatu zen.

Oihan enkantea

Plegu itxiaren bidez, Udalak Ametxoko aldean oihan aprobetxamendu bat paratu du salgai enkante irekian. Lote bakarra atera du enkantera: 1.062 pinu radiata. Lotek 1.058 metro kubiko zur eta 160 metro kubiko egur ditu eta 40.800 euroan ezarri dute hasierako prezioa. Interesatuak Herriko Etxera jo beharko dute.

Mendiko lanak

Udalak, Gobernuak lagunduta, zenbait mendiko lan egin nahi ditu: mantentzen dituzten lanak, zaborrak garbitu eta bi baden egin. Lan horiek Basartearen enpresak egindako proiektuan bilduak daude. Aurrekontua 10.798 eurokoa da.

ESIP
Energia Berenagariaren
Instalazioak eta Injerentzia

Eguzki-energia berreskua
- Kontsumoko ura berreskua
- Berreskua
- Eguzki-energia berreskua
eta hitza-energia
- Eliza berreskua
- Sare neguzko instalazioak
- Sareak
- Bateria - Peltak gabeko

ALTAIA
www.esipar.com
info@esipar.com
T. eta F. 948.564.024
Muz. 609.74.52.25

PIKABEA
harategia
janariak

7. BERRA • 948 531 034

Tel: 948 634 179
ARANTZA
ALBERGIA • JATETXEA

ATERPE
ALBERGIA

Pitti
estabazioak
Tel: 616 513 491

Mendiak eta etxeak, 34 • ZUBIETA

IGANTZI

Herriko bide, inguru eta etxeen izenak biltzen dituen mapa aurkeztu du Euskara Batzordeak

Kirru Sarobe eta Oskar Txoperenaren lana izan da

ttipi-ttapa

Maiatzaren 1etik 4ra egin ziren Udaberriko Bestetako ekitaldien artean, maiatzaren 2an, ortziralarekin, Euskara Batzordeak aurkeztu zuen Igantziko mapa izan liteke aipagarriena: herriko bideak, parajeak, etxeak eta abar biltzen dituen lana, alegia.

Duela hiru-lau urte atera zen Euskara Batzordean mapa egiteko asmoa, bertakoek zein kanpokoek bide, paraje eta etxeak non dauden eta batez ere horien izenak nola diren eta nola idazten diren jakiteko. Azkenean, Kirru Saroberekin harremanetan jarri eta Oskar Txoperenarekin batera lana osatu dute.

Finantzaziori dagokionean, joan den urteko apirilean egindako azokatik eta Nafarroako Kutzaren zeuk aukeratzen duzu, zeuk erabakitzen duzu proiektuaren bitartez lortu dute dirua.

Maparen ale batzuk ekitaldira hurbildu zirenen artean banatu zituzten, eta horrez gain, berze herriko etxeetara bidaliko zituztela adierazi zuten batzordetik. Gainerakoentzat, berriz, mapa salgai paratuko da.

Bertzalde, haur, gazte zein helduek gozatu dute Udaberriko Bestetotan. Filmak, antzerkiak, bideo emanaldiak, bertsoak, pailazoak, barrikoteak... Denetarikoko ekitaldiak izan dira.



ARGAZKIAK: UTZITAKOIA ETA GOIZALDE URDANPILLETA

Goiko argazkia maparen aurkezpen ekitaldikoa da, Oskar Txoperena eta Kirru Sarobe ageri dira. Behekoa, berriz, Igantziko bertso eskolako ikasleek eskaini zuten saioan ateratakoa da.


Lizun
 GAZTANDEGIA
 Etseko Ardi Gazta
 Petxenekoborda - SUNBILLA - Tel: 948 450 862

XATURETXEA

JATETXEA
 T. 948 637 260 - LESAKA


YOAN
 Eskualderako Produktu Esklusiboa:
 SASSOON KOLORAZIOA
 SASSOON KOLORENTZAT
 PRODUKTU SALMENTA
 DETTU ORDUA ESKATZEKO




AMAIUR
 altzarlak
 Rosa Seminario 13
 DONEZTEBE
 Tel.: 948 450 400
Aurreratuak konpromisoak gabe

SUNBILLA

Iñurrieta bodegara ateraldia antolatu du Ulibeltzak Elkarreak maiatzaren 24rako

Izena emateko epea ortziral honetan, maiatzaren 16an, akituko da

Jaione OTXANDORENA

Joan den urtean izandako arrakasta ikusita, Ulibeltzak Elkarreak berriro ere Bodega bat bisitatzera joateko proposamena luzatu du. Aurtengoan Iñurrieta bodegari izanen da ateraldia, hilaren 24an. Hau da egun horretarako prestatu duten egitaraua: 10:00etan Fonda ondotik autobusa aterako da. 12:00etan bodega bisitatuko da. 13:30-14:00ak aldera ardo dastaketa eta bazkaria egingen da. Izena emateko epea maiatzaren 16a arte izanen da zabalik, Iturburu ostatuan. 45 pertsonendako lekua dago eta autobusaren balioa 12 eurokoa da eta bazkariarena 25 eurokoa.

Afrokubatar dantza ikastaroa

Afrokubatar dantza ikastaroa emanen du Ana Mendiolak frontoian. Sei orduko ikastaroa izanen da eta oraindik zehaztu gabe dagoen as-terburu batean egingen da.

Ikastaroaren balioa 60 eurokoa da eta informazioa nahi duenak telefonon honetara deitu dezake: 652734081 edo bertzelera, helbide elektronikon honetara idatzi: anadanza2@hotmail.com. Animatu, mugimendukutsakorra dela diote eta!

Kinto bazkariak

1948-1958 urteen artean jaiotako kinto bazkaria egingen da ekainaren 14an. Oraindik egun horretarako egun dezentente falta badira ere, erran behar da, bazkari horretan izena emateko epea maiatzaren 31n bukatzen dela eta Iturburu ostatuan eman daitekeela izena.

Trinitate Eguna

Igande honetan, maiatzak 18, ospatuko da Trinitate edo Mendaur Eguna. Iturendik eta Arantzatik ez ezik, Sunbillatik ere jende dezentente joaten da egun horretan Mendaurko ermitara, baztukmeza entzutera, bertzeak ermitari hiru bira

eman eta desioa eskatzera, edo bertzerik gabe mendira joatea gustatzen zaienak ere aprobetxatzen dute egun hori. Garai batean egun horretan musika izaten zen herrian, baina urteak dira ohitura hori desagertu zela, pena da baina... Iturenen oraindik egiten

da, eta nahi duenak harat joan beharko du.

Herritar bat Mihiluzen

Natalia Arretxea herriko neska gazteak, Donamariako Itsasne Lagsaga lagunarekin ETBko Mihiluze saioan parte hartu du. Maiatzaren

20 inguruan azalduko dira telebistan eta saioan zer lortu zuten ez dugu erranen, sorpresarako utziko dugu. Bakarrik aipatu, egun bat baino gehiago egin zutela. Beraz, adi egun horietan bi neskak 21:30ak aldera ETBn ikusteko aukera izanen baitugu!



ARGAZKIA: ONDIKOL

Ameriketako artzain izandakoen besta

1987an hasi ziren Ameriketako artzain izandako sunbildarrak besta hau ospatzen. Aurtengoan 36 lagun bildu ziren Ulibeltzak Elkarrean eta urteroko ohiturari jarraituz, ederki bazkaldu eta arratsaldean Ariztigain kanpalekura joan ziren, Joxe Mari Arretxeak *Itxegk* amerikarren erara egindako bi ogirekin eta gaztarekin meriendatzera. Arratsean berriro ere elkarrean afaldu zuten guztiak. Aipatu, bazkari hau egiten hasi zirenetik, maiatzaren 1ean elkartzen diren artzainen kopurua aunitz jaitsi dela, Ameriketako egondako 17 sunbildar hil baitira azken 20 urteotan.

◀◀◀◀◀◀ I R U K I D ◀◀◀◀◀◀

Eguzki panelak ◀▶ Iturritza
Elektrizitatea ◀▶ Aire erregulazioa
Industria mantenimendua ◀

Zelai industrialdea 42 B • 15 • 31780 BERA (Nafarroa)
948 625 395 • email: artizua@turya.es

BELARRI JITEZ

DOÑEZTERRA • 948 450 300

BIZIKLETEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

KANTONBERRI, 1 • BERA
948 63 12 18

ITUREN

Igande honetan ospatuko da Trinitate Eguna

Bazkarirako txartelak Herriko Ostatuan eta harategian daude

Arkaitz MINDEGIA

Maiatzaren 18an izanen da Trinitate Eguna. Urtero bezala, egun polita izanen da herritar eta bisitan etortzen direnentzat. Behin kaxkora iritsita batzuk meza entzun, bertzeak gosaldu, lagun artean egon... Modu ezberdinean pasa daiteke eguna. Eguerdian enbaltseetara jaitsi eta lagun artean bazkaltzeko au-

keraz izanen da.

Ohiturari segituz, Ibintza Kultur Taldeak bazkaria antolatu du egun horretarako eta apuntatu nahi duenak Herriko Ostatuan eta harategian egin behar du. Bazkaldu ondotik Sebastian trikitilariak alaituko du arratsaldea.

Arratsaldean, berriz, herriko plazan dantzaldia izanen da akordeoi-lariarekin.



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

Kurtso bukaerako kontzertua

Mendaur trikitixa eskolako ikasleak kurtso guztian trikitixa eta pandertak ikasten pasa ondotik, maiatzaren 28an kurtso bukaerako kontzertua egingen dute gurasoen aitzinean.

Bestaberri

Maiatzaren 25ean, azken urteetan bezala, herriko dantzariak meza nagusiaren ondotik, herriko plazan dantzatuko dute.

Maika Ariztegi

Leitzan jokaturako XXX. herri krosan 280 korrikalariren artean, emakumezkoetan eta beteranoetan, Maika Ariztegi iturendarra le-

hena izan zen, 19 minutu eta 53 segundoko denbora eginez. Horrez gain, Berako IV. Mendi Maratoi Erdian seigarren gelditu zen, 2:30:51 denborarekin.

Lasao

egurrezko altzaria

Lasao industrialdea 20730 AZPEITIA
Tfnoa: 943 15 11 82 · Faxa: 943 15 10 98
e-posta: informacion@lasao.com
www.lasao.com



HEZKUNTZA

Gobernuak eskola berriak egitea aurreikusi du Almandoz, Irurita eta Iturenen

Hezkuntza Departamentuaren lehen zirriborroak 20 ikastetxe berri aurreikusi ditu

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak egin berri duen obren azken zirriborroak aurreikusitakoaren arabera, 20 ikastetxe berri egingen dira aurten hasi eta 2012ra bitarte Nafarroan. Horien artean, eskualdeko hiru daude: Almandoz, Irurita eta Iturengo, hain zuzen.

Carlos Perez-Nievas Hezkuntza kontseilariak hala aurreratu zuen apirilaren hondarrean, parlamentubatzerdi batean. Lerro hauek idazterakoan, bertze alderdiek zirriborroa oraindik onartu gabe bazuten ere, lehen momentuan ez zuten kontrako iritzirik



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Iruritan aspaldi ari dira egungo eskolaren egoera kaskarra dela salatzen, eta eraikin berria behar dutela eskatzen.

azaldu, eta adostasunera ailegatuz gero, 20 ikastetxe berri horiek eraikiko omen dira—horietatik bi dagoeneko eginak dira—.

KONPONKETA LANAK BERTZE ESKOLETAN

Ikastetxe berri horietaz gain, dagoeneko martxan diren bertze aunitzetan erabe-

rritze lanak egingen dira, eta toki eskasiari aitzin egiteko, zenbaitetan haunditu egingen dira eraikinak. Atal honen barrenean, 65 jar-

duera egingen dira. Horren inguruan, Hezkuntza kontseilariak erran zuenez, eraikuntza enpresa bati obra egiteko eskatzean «*hasiera eta bukaerako datak ere zehaztuko dira, ikasturtea arazorik gabe joan dadin*».

Bertzalde, aipatu, Nafarroako Unibertsitate Publikoak Gobernuaren eskariz egingdako ikerketaren arabera, hainbat herritan eskolatzeko datuak nabarmen egin dutela goiti. Horietan ere zerbait egin beharra dagoela azpimarratu zuen Perez-Nievas kontseilariak, beharrak asetzeko eta ikasleen segurtasuna bermatzeko. Kasu horietako bat da Leitzarena.

edredoi-azal nordikoak

albornozak

edredoi nordikoak

ohe estalkiak

maindireak

mantelak

kuxinak

toallak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

2008ko udaberriko
kolekzio-berria

Tafulla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

LEITZA

Maiatzaren 17tik 25era izanen da Aste Kulturala

Asteburu honetan Euskal Kantuen Topaketa egingen da.

Joseba URKIOLA

Maiatzaren 17an hasiko da 2008ko Aste Kulturala, eta urtero bezala ekitaldiz beteta heldu da. Aipatu, Kultur Taldeak Aste Kulturala tarteko, logotipo lehiaketa bat antolatu berri duela. Honekin, Kultur Taldeak irudi berri bat izanen du eta orain arte Aste Kulturalako foiletoetan egon ohi zen Picassoren Gernika obraren irudiaz gain, beste irudi bat ezarriko du.

Maiatzak 17 eta 18, larunbata eta igandea

Euskal Kantuen Topaketa. Askoren artean, Anje Duhalde, Benito Lertxundi eta Gorka Urbizu egonen dira. Hauek hitzaldi eta kantu saioak eskainiko dituzte.

Maiatzak 19, astelehena

20:00etan, Aurreran.
Oreka Txren hitzaldia.

Maiatzak 20, asteartea

20:00etan, Aurreran.
Arantzadi Elkarteak Txinturrietaren eskutik *megalitoen* inguruko hitzaldia.

Maiatzak 21, asteazkena

20:00etan, Aurreran
Merkataritza justua ren inguruko hitzaldia. Solasaldiaz gain, gaiarekin lotura daukaten hainbat produktu dastatzeko aukera izanen da.

Maiatzak 22, osteguna

20:00etan, Aurreran
Txente Rekondo hilararen eskutik, *globalizazioari* buruzko solasaldia.

Maiatzak 23, ostirala

15:00etan, zinean
Angel magoaren *magia ikuskizuna*.
18:30ean, herrikoplazan
Jo Tta Kun taldearen eskutik *txalaparta ikastaroa eta erakustaldia*.

Maiatzak 24, larunbata

10:30ean plazan
Xiba jokoak.
Ondoren, Karrapen herri bazkaria.
19:30ean San Migel Parrokian *organo kontzertua*.

Maiatzak 25, igandea

Herriko plazan *artisan*



UTZITAKO ARGAZKIA

Bide Berdeen Eguna arrakastatsua

Antolatzaileen aurreikuspenak gaituz, ehunka lagun bildu ziren maiatzaren 4an, Bide Berdeen Egunean. Zazpigarren edizioa zuen Plazaolako Partzuego Turistikoak ospakizun hau antolatzen zuela, aldi honetan Udalaren laguntzarekin. Goizetik, hainbat txirindulazale eta oinezko ibili ziren garai bateko Plazaolako trenbidetik. Izan ere, egun honen helburua garai bateko trenbideak berreskuratzea eta bide berdeak bultzatzea da. Ibilaldien ondotik, plaza bildu zen jendea eta pintxoak eta edariak izan zituzten indarrak berreskuratzeko. Eguerdian pailazoaren emanaldiarekin gozatu zuten txikienek. Adargio soka laukoteak ere musika kontzertu ederra eskaini zuen Karrapen. Berrikuntza gisa, zonaldeari eta herri kirolei buruzko bi proiektzio eskaini ziren.

azoka eta ehotzirien bilkura.

19:30ean, zinean *Katalamalo ikuskizuna*.

Bertzalde, aste gutxian udaletxeko areto nagusian hainbat erakusketa ikusteko aukera izanen da: merkataritza justuaren inguruko objektuak, ihoteetako sonbreroak, Maite Biurraren lan batzuk...

Haur, guraso eta irakasleen topaketa

Leitza, Goizueta eta Aresoko Guraso Elkar-

teak eta Gizarte Zerbitzuek antolatuta, apirilaren 26an, Haur, Guraso eta Irakasleen IX. Topaketa egin zen Leitza. Eguraldia lagun, eguna antolatzaileek espero moduan igaro zen. Herri desberdinetako guraso eta haur asko izan ziren ekitaldira gerturatu zirenak. Goiz partean, jokuetan parte hartu zuten txikiak. Honekin batera, haurrek aurretiaz prestatutako dantza batzuk ere eskaini zituzten. Ondotik, Erleta Eskolako jolastokira joan ziren, elkarrekin bazkaltzera.

Arratsaldean ere jolasean ibili ziren.

Kuadrilen arteko futbol txapelketa

Hasi da 2008ko herriko kuadrilen arteko Eskolako Futbol Txapelketa. Aurtengoan, 10 taldek eman dute izena. Guztiek elkarren aurka jokatu beharko dute lehen fasean. Okerrik ezetan, partidak larunbat arratsaldetan eta igandean goizetan jokatu dira. Antolatzaileen arabera, txapelketa pesta aurreko asteburuan amaituko da.

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE

ANZABAL
AGENTZIA

- Zurich Asagurusk
Autza, etxebizitza, irispi eta bizitza asagurusk
- Lan aholkularitza
Nahia eta Asaguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Enpresa Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
Baserrak, botza, pisu, etab... salmenta eta arakurak
- Gestoria
Bilgailuen transferentziak, gidatzeko karmetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago, 15 - ELIZONDO
Tfnua eta Faxa: 948 580 804
anzabal@anzabal.com

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Brailo jolaste karnika
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

GOIZUETA

Wi-Fi zerbitzua doan Herriko Etxean

Hasiera batean udaletxeko lan orduetan eskainiko da zerbitzua

Esteban AROTZENA
 Ordenagailu portatil baten jabe guztiek gabeko Interneteko konexioa (Wi-reless edo Wi-Fi) doan jasotzeko aukera dute orain dela egun batzuz geroztik Herriko Etxean. Ganbara erabili ahal izanen dute herri-ahalekin horretarako.

Udaletxeko lan ordutegiaren barrenean bakarrik eskaintzen da zerbitzu hau oraingoan. Dena den, gai honi buruzko plangintza askoz zabalagoa aurkeztu dio Udalak Nafarroako Gobernuari eta epe motz samarrean erantzun ona jasoko dutelakoan omen daude, alkateak esan zigunez. Eskakizuna gauzatzen denean, bizpahiru ordenagailu egonen omen di-

ra Ganbaran edo Herriko Etxeko beste gelaren batean, edozeinen esku, askoz ordutegi erosoagoarekin gainera.

Dantza saioa hilaren 24an

Nafarroako Gobernu eta Udalaren artean antolatutako ekitaldian Iruñako Oberena dantza talde ezaguna izanen da herrian larunbatean, hilaren 24an. Ilunabarreko 8etan hasiko da emaldia, plazan edo Lubineko pilotaplazan, eguraldiaren arabera.

Elkartasuna AAMri

Amnistiaren Aldeko Mugimenduko (AAM) 27 auziperatuei elkartasuna eta babesa lu-



ARGAZKIAK: NAIARA AROTZENA

Txino auzoko festak

Urteko jai handien zerrendaren barrenean leku propioa egin du Txino-ko festak. Aipatu beharrekoa da, bezperako Zubiondoko mus txapelketan hogeitarik parte hartu zutela eta Jon Apezetxea eta Aitor Apezetxea izan ziren zapeldunak, J.R. Iribarren eta Javier Zabalarri finala irabazita. Bezperan ongi hasitakoa larunbatean borobildu zen: ia 300 lagun herri bazkarian, ekitaldi guztietan jendearen parte-hartze handia, gaugiro partegabea... Maria Jose Osak bota zuen eguerdian altxaferoa.

zatu zien udalbatzak azkeneko plenoan. Baita auziak dakartzan galera ekonomikoari aurre

egiteko 200 euroko dirulaguntza eman ere. Auzitegi Nazionalaren desagerpena ere alda-

rrikatu zen aldeko bost botorekin eta abstentzio batekin onartutako mozioan.

Donamaria'ko Benta
 Errebera egin behor da: 948 450708
Menu mexikar gastronomikoa 2008-05-24:
 • 25 euro pertsona bakoitzeko
 • Kantina bezkario ezagutzeko sukaldari mexikarra
 • Afari-ordua nahi denean
 • Mariatxi obediarekin abaitu

gaztelu scl
 iturgintza
 kalefakzioa · saneamendua · gasa
 Tfnoa: 948 510 085 · 948 510 155
 Faxa: 948 510 856
 LEITZA

APARAN, S.A.
BROKOLALA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate aruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 458 080
 Fax: 948 460 334
DONEZTEBE

ITURRALDE
 pvc & aluminio

☎ 667 264 025 · 948 581 967
 ✉ maxene@terra.es

ARESO

Etxebizitza beharrak aztertzekeo bilkura egin du Udalak gazteekin

Informazioa bildu eta plangintza bat egitea da Udalaren asmoa

Juana Mari SAIZAR

Udalak deituta, etxebizitzaren gaia jorrazteko bilera bat egin zen joan den maiatzaren 8an. Batzar hori gazteei zuzendua zegoen gehienbat, beren beharren aurrean erantzunak eman nahi direlako, eta horretarako informazioa bildu eta trukatzearen beharra ikusi zutelako Herriko Etxean.

Hortik abiatuta, plangintza bat egin nahi du Udalak eta beharrak kudeatu nahi ditu.

Egur lotea lertz inguruan

Iertz handiko parajeetan, sutarako egur loteak markatu dituzte. Egun bat izendatu zuten egur loteak ateratzeko eta bertara azaldu ziren orok atera dezakete haien zenbakia. Eskatzen zen bakarra iazkoa ekarria izatea zen. Orain dela urte batzuk ere loteak markatu zituzten inguru horretan, baina orduan goikaldean izan zen, eta aurtengoan, berriz, pistaren behekaldean.



Sokatira taldea lanean

Aresoko sokatira taldeak hasi du denboraldia dagoeneko. Aurtengoan, 13 laguneko taldea ari da lanean eta horregatik, kategoria guztietan hartu behar dute parte. Lehenengo saioa berriki jokatu zuten eta leerro hauek idazterakoan oraindik jokatu gabe zegoenez, aurrerago eman dugu horren berri.



Santa Kruz ermitara ateraldia

Maiatzeko lehen igandean, ohitura den bezala, Santa Kruz ermitara erromesaldia egin zuten herritarrek. Eguraldi onarekin, jendea animatu egin zen eta bidean gurutz bidea eginez meza santua entzun zuten. Neska gazteek Amabirjinari loreak eskaini zizkieten eta behin meza bukatuta hamaiketakoa egin zuten bildutakoek.

ARANO

488.525 euroko aurrekontua onetsi du Udalak 2008rako

Gastuen %73,6a inbertsio errealetatara bideratuko da

Kontxi KLABER

2008an 488.525 euroko aurrekontua izanen du Udalak. Diru-sarrerei dagokienez, honela geratu dira kontuak: zuzeneko zergen bidez 84.100 euro jasoko dira; zeharkako zergekin 20.300 euro; tasak, prezio publikoak eta beste sarrerekin 14.900 euro; transferentzia arruntekin 44.700 euro; ondareko

sarrera eta aprobetxamenduekin 7.950 euro; kapital transferentzia eta beste sarrerekin 256.500 euro eta finantza-pasiboekin 60.075 euro.

Gastuetan, berriz, langileen lansarrietan 58.650 euro joanen dira; ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuetan 42.615 euro; transferentzia arruntekin 27.860 euro eta inbertsio errealetan 359.400 euro.



ARTXIBOA

Ansa izeba-ilobak segan

Almitza Sega Elkarteak aurtien lehen aldiz Almitzaren Sega Liga antolatu du. Emakumezko zein gizonezkoek parte hartuko dute, 50 eta 100 metro koadroko sailak ebakiz, hurrenez hurren. Emakumezkoetan lehiatuko diren 10 lagun artean daude Ixabel —argazkian— eta Ainhoa Ansa izeba-ilobak. Gizonezkoetan, berriz, 29k eman dute izena. Lehen saioa igande honetan jokatu da Zerainen (Gipuzkoa), 17:30etik aurrera; bigarrena ekainaren 15ean Igorren (Bizkaia); hirugarrena ekainaren 29an Tolosan (Gipuzkoa); laugarrena uztailaren 13an Asteasun (Gipuzkoa); bosgarrena uztailaren 20an edo 27an Artean (Bizkaia); eta azkena abuztuaren 2an Oiarzunen (Gipuzkoa).

TEKNOLOGIA

Emakumeentzat eta 55 urtetik goitikoentzat informatika ikastaroak Amaiur, Urdazubi eta Oronoz-Mugairin

Elizondon dagoeneko egin da ikastaroa

ttipi-ttapa

Cedema Garalur El-karteak Nafarroako Gobernarekin sinatu duen hitzarmenaren bitartez, *Hurbildu IKTetar@* programaren bame, ordenagailua, Internet eta posta elektronikoa erabilerari buruzko hastapen-ikastaroak egiten ari dira Baztanen eta Urdazubin. Emakumeentzat eta 55 urtetik goitikoentzat dira, eta aurten gainera, *ikastaroak garraioarekin* modalitatea gehitu da: Gobernuak garraioa paratuko du inguruetako herrietako ikasleak ikastaroa emanen den herrira eramateko. **Elizondon**, maiatzaren 5etik 16ra egin zen. **Amaiurren**, berri, 19tik 30era izanen da ikastaroa, garraioarekin. Ikastaro honetan parte hartu nahi dutenek taxia izanen dute Erratzu, Bozate, Arizkun, Azpilkueta eta Urrasunen barna, Amaiurrera joateko. **Urdazubin** irailaren 1etik 12ra izanen da ikastaroa eta **Ornoz-Mugairin** urriaren 27tik azaroaren 7ra. Ikastarok 25 orduko iraupena izanen dute, eta doakoak izanen dira. Saio bakoitzak bi ordu eta erdiko iraupena du eta bakoitzean partaide-kopurua guttienez 8, eta gehienez 12 lagunekoa izanen da.



BAZTAN

Eskualdeko lehen aparkametroak estreinatu dituzte Elizondon

Foru Plazan eta Pedro Axular karrikan paratu dira

Maite OTEIZA

Urteetan Elizondo herriguneko merkatariek kexu izan dira aparkaleku faltarengatik. Merkataritza guneen hedapena gure herrietarat ere ailegatu da, eta denak gara horren lekuko. Erosketetarako eremuak erdigunetik atera eta, bereziki Elizondoko bazterreterat gan dira.

Merkatariek salatzen zuten arazo larriena bat aparkalekuen falta zen. Elizondo erdian dauden aparkaleku gutti horiek inguruko langileek edo kotxea denbora luzera uzten zutenendako erabilgarriak ziren. Honi aterabide bat emateko, Udalak eremu urdina bihurtu zituen Foru Plaza eta Pedro Axular karrika (Santxotena jatetxea dagoen kalea). Horrez gain, Herriko Etxearen gibeledako aldean, aparkaleku publiko berri bat ere ireki zuten.

Orain bertez aurreapauso bat eman du, eta aparkametroak jarri ditu. Maiatzaren 5az geroztik, orduko 20 zentimoko txartela erosi behar dugu, bertan aparkatu nahiz izanez gero.

Iruritan 2010ean eskola berria

Baztango herrietako eskoletan, azken urteotan matrikulazioak nabarmen egin du goiti, eta zenbaitetan espazioa arazo bihurtu da. Horien artean Irurita eta Oronoz-Mugairiko eskolak daude; ikastetxe berria behar dute. Behar haundiena Iruritak du, 55 ikaslerekin espazio falta larria baitu. Orain arteko konponketekin hala nola moldatu dira, baina denak bere mugak ditu.

2007/2008 ikasturtean, Erreboteko parroikia zentroa zena erdibitu eta zati batean ingelesa eta psikomotrizitate gelak atondu ziren, biak batean, sei gela finko beharrean. Hemendik bi urtera zazpi gela beharko direnez, Perez-Nievas Hezkuntza kontseilariak Baztanera egindako bisitan Iruritakoari lehentasuna eman zion. Udalaren proposamena frontoi ondoko lur eremu batean egitea da. Argi dago, arazoak irtenbidea behar du

Eta Lekarozko kolegioa?

2006az geroztik, Lekarozko kolegioaren



ARGAZKIA: ONDIKOL

Baztango beste hasiera eman diete Iruritakoek

Urdazubi eta Iruritako Salbatore bestekin eskualdeko herrietako beste hasiera eman zitzaizkien, segidan Berroetakoei eta Almandozkoei gero, lekukoa utziz. Iruritan, aurtengo egitarauak ez zuen aspertzeko denborarik eman, uneoro zer ikusi edo zer egin egon baitzen. Eguraldia ezin hobea izan zen, eta giroa ere halaxe. Aipatzekoa dira, berezitasunagatik, Teileriko maldan (Gizarte Bilgunearen parean) egin ziren grafitiak. Iruñeko talde batek eta Juan Angel Perotxenak egun guztia eman zuten lanean. Honekin batera, Gizarte Bilgunean, break dance erakustaldia izan zen. Bezperan, berrikuntza moduan, dantzaldia izan zen Joxe Angel eta Kristianekin, guztien gozamenarako. Aurten besta egunak izaki —zubia—, aunitz nabaritu da jende alde-tik, bai dantzarien eta bai txistularien artean ere. Bertalde, txirrindulari lasterketa egin ez zenez, I. haur krosa egin zen Apoten, 59 parte-hartzaileekin.

etorkizuna zalantzan dago. Kaputxinoek atea itxi zituztenetik, zurrumurruak ez dira isildu. Hasieran, Udalak erosi-ko zuela ziurtzat ematen zen; baina Nafarroako Gobernuak sorpresa eman zuen erostean. Zertarako? Erabilpen aunitzetarako aditu dugu. Azken proposamenak Parlamentutik datozkigu: hizkuntza zentroa eta Bidasoako pintoreen museoa. Horretarako 12 milioi euroko partida adostu dute. Dakigun gauza bakarra, gero eta makurrago dagoela eraikina; lapurrak lasai ibili dira kolegioko pareten artean, barnekoa desegin dute... Zer gertatuko den azkenean? Auskalo!



ARGAZKIA: CENTROVASCO.COM

Baztango Eguna Mexikon

Umorea eta giro ona nagusitu ziren maiatzaren 1ean Mexikoko hiriburuko Euskal Etxean egindako V. Baztango Egunean. Agerian gelditu zen gero eta Mexikon bizi diren baztandar gehiago elkartzen dituela ospakizunak urtetik urtera. Alfonso Andueza apaizak emandako mezarekin hasi zuten eguna, eta ondotik bazkari baten bueltan elkartu ziren. Giroa alaitzen, baztandar ezagunak ikusi ziren: Patxi Larralde txistulari arizkundarra, Luis Antonio Barberena akordeoilaria eta Julian Istilart txistularia, bertzeak bertze. Argazkian antolakuntzan ibili ziren batzuk ageri dira.

POTTOKI

Baztanberri Plaza, 3 - behea
31700 ELIZONDO (Nafarroa)
Tfona: 948 581 983
info@pottoki.com
www.pottoki.com

Asteleheneratik
larunbatera
9:30 - 13:30
16:30 - 20:00

Gierresenea

OSTATU · JATETXEA

Jaki tipikoak · Etxeko giroa

Herritza ez dago · Tfona: 948 582 043
ORONÓZ - MUGAIRI

BAZTAN

Almandozko Bestaberri bestak maiatzaren 21etik 25era

Egun haundian pilota partidak izanen dira nagusi

ttipi-ttapa

Irurita eta Berroeta-ren ondotik, Almandozko Bestaberri besten txanda ailegatuko da. Maiatzaren 21ean hasi eta 25era luzatuko dira.

16:00etan *puzgarriak*.
18:00etan *mus txapelketa*.
22:00etan *gazteen aforia* Futbolinean.
00:00etan AGERRALDEekin *dantzaldia*.

Maiatzak 21, asteazkena
13:00etan *altxaferoa*.
21:30ean *Baztan-zopak* Futbolinean AGERRALDEK alaituta.

Maiatzak 24, larunbata
11:00etan *mus txapelketa* finalerdia eta finala.

Maiatzak 22, ortzeguna BESTABERRI EGUNA
08:00etan *egunsentiko kantak*.

14:00etan *zikiro jatea* frontoian.
17:00etan AGERRALDEekin *dantzaldia*.
01:00etan *show diskoa*, espuma besta eta gogoak.

12:00etan *Meza Nagusia*.
13:00etan *luntxa* frontoian.
17:00etan *pilota partida* gazteen artean.
18:00etan *pilota partida* nagusia:
Altzugarai-Iraola
Atxa-Otxandorena
22:00etan *kalderetea* frontoian.

Maiatzak 25, igandea
12:00etan *Meza Nagusia* (Lehenengo Jaunartzeak).
16:00etan *haurrentzako puzgarriak*.
19:00etan *urdaiazpiko eta gazte banaren zozketa*.
22:00etan *Gaixoa ni*.

Maiatzak 23, ortzirala HAURREN EGUNA
11:00etan *haurrentzako ginkana*.

Araudia gogortua
Lurzoru ez urbanizagarran etxeak egiteko orain arteko araudia guz-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Eskualdeko txapel bakarra Basaburuarena

Hainbat jardunaldi jokatu ondotik, maiatzaren 4an jokatu zen Nafarroako Herri Kirol Jolasetako azken saioa Txantrean. Kategoria ezberdinetan aritu arren, txapel bakarra ailegatu da eskualdera, Baztango Basaburuak kadete mailako sokatira txapelketan lortutakoa, hain zuzen. Sokatiran, baina haurren mailan, bigarren izan ziren Basaburuako neska-mutikoak. Alebin eta haur mailako proba konbinatuetan hirugarren sailkatu ziren baztandarrak eta kadeteetan, berriz, laugarren. Argazkian herri kirol jolasetan parte hartu duten gaztetxoak ageri dira.

tiz zehatza ez zela irizita, Udalak berritu egin du aipatu araudia. Nafarroako Gobernuak Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak ere bere oniritzia eman dio erabakiari eta indarrean dago dagoeneko.

Beti ere, Baztango ohiko etxebizitzaren ezagarririk bat etorri beharko dute etxebizitza berriek, eta nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta aisialdi zein kirol ekintzekin loturarik ez duten etxeak egitea debekatua gelditu da. Eredu isolatueta familia bakaurreko etxebizitzak egitea ere ahalbidetzen du arau-

diak, baina Nafarroako Gobernuaren eta Baztango araudiekin bat etorri gero. Eraikin berriak dagoeneko badauden azpiegiturretan oinarrituz eraiki beharko dira, bide berriak irekitzeko beharrik izan gabe. Gisa berean, %25eko maldabaino altuago den lur eremuetan ezin izanen da etxerik egin. Horiek dira, berteak berte, araudi berriak exijitzen dituen neurrietako batzuk.

Udal kontuak «normalizatuak»

Udaleko Na Bai taldeak ohar bidez jakinarazi duenez, bere garaian za-

lanta eragin zuten kontratuak «normalizatuak» gelditu dira hilaren 5eko osoko bilkuraren ondotik. Gobernu Taldeak argitu du, zenbait obra eta kontratuei buruz udal kontu-hartzaileak eragozpen oharrak paratuko zituela jakin arren, helburua «baztandarren premia handiei ahalik eta hobekien erantzutea zela» eta horregatik hartu zirela erabaki azkarrak. 2008ko aurrekontua laster aurkeztuko dutela ere ageri da oharrean, eta «Udalaren egoera bere onera etorri denaren seinale direla aho batez hartutako erabakiak».

FRRETEGIA ORDOKI LIKOREAK
Perillan egindako haragi eta arrainak
Tel: 948 453 410 Fax: 948 453 378 - ARIZKUN

Eskisaroi
Jaime Urrutia
Tfnos: 948 560 013
ELIZONDO

BURKAITZEA
- ostati
- erretegia
Zugarramurdi bidea, 3 km
948 569 280 - URDAZUBI

ARKITECTURA ETA DIRIGINTZA
ETXEBIZITZA PROIEKTOAK
URBANIZAZIO PROIEKTOAK
ETXE BERRITZEAK
NABEAK
KONSULTAE
INFOGRAFIA: 3D
ELIZONDO - Santiago, 54 behe - 948 581 931
BERA - Estegara, 8 behe - 948 625 232

URDAZUBI

FLASH

Uholdeen kalteak moldatzeko kasik 1,2 milioi inbertitu ditu Gobernuak

Hala adierazi zuten Salanueva eta Sanzberro kontseilariak egindako bisitan

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak, Toki Administrazio eta Landa Garapen eta Ingurumen departamentuen bidez, 1.180.000 euro inbertitu ditu Urdazubin, iazko uholdeek sortutako kalteak moldatzeko lanetan. Hala jakinarazi zuten maiatzaren 2an, Salbatore bestetan, Amelia Salanueva eta Begoña Sanzberro kontseilariak Urdazubira egindako bisitaldian.

Eginak dauden lanez gain, Udalak finantziazio gehigarria eskatu du, ia 4 milioi euroko gastua eraginen duten lan batzuei ekiteko. 3,2 milioi euro, Dantxarinearako zeharbidearen hirigintza lanetarako izanen da. Gobernua 3 milioi euro ematea aztertzen ari da.

Iazko uholdeak tarteko, Udalak eta Gobernuak hitzarmena sinatu, eta 1.051.956 euroko dirulaguntza adostu zuten, herriko azpiegitura kalteak moldatzeko. Ingurumen Departamentuak, bere aldetik, 133.208 eu-

ro eman zituen, nekazaritzako azpiegitura publikoak moldatzeko. Donpedrorena, Putikoneko, Maskoneko Borda eta Berroberriko Bordan bi-deak moldatu ziren.

Bertzalde, uholdeekin zerikusirik ez duten lanak ere subentzionatu ditu Gobernuak: Alberdi auzoko saneamendu sarea berritu eta Azkain eta Gantxenea baserrie-

tarako sarbideak egokitu dira. Herri eta auzoetako edateko ur sarearen zati bat ere berritu da, Otxondotxiki iturritik ura hartuz. Udaletxean ere hobekuntzak egin dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Umore onean joan dira herriko bestak

Eguraldia lagun, giro onean joan ziren Salbatore Bestak. Egitarauaren barne, maiatzaren 3an jokatu zen Urdazubiko mendi lasterketaren IX. edizioa, kontrabandisten lasterketa ere deitua. Gizonezkoetan Fernando Etxegarai beratarra nagusitu zen (39:29), bigarren gelditu zen Unai Santamaria hernaniarrak baino ia bi minutu guttiagoko denbora eginez (41:17). Hirugarrena Patxi Irtzoki igantziarra gelditu zen, eta laugarren eta bortzgarren Iñigo Lasaga etxalartarra eta Alberto Barberena elizondarra, hurrenez hurren. Emakumezkoetan, Kristina Arbues igantziarra gailendu zen (53:46), eta bigarrena Baionako Magali Bucau sailkatu zen (1:05:36). Helmugaratutako lehen urdazubiarra Patxi Perez izan zen, 29. postuan ailegatu zen (1:00:47). Antolakuntzak, bere aldetik, barkamena eskatu nahi die bai korrikalariei eta bai Saratik zaldian hurbildu zirenei ere, lasterketan izandako istripuxoarengatik.

Urdazubiko Udala ez da kondenatua izan

Aitzineko ttipi-ttaparen alean Urdazubiko Udala 2006ko plenoan hartutako erabaki baten bidez kondenatua izan dela azaldu zen, eta Santiago Villares alkateak ere «kondena» hitza erabili arren, sententziako terminoak kontrastatu ondotik baieztatu daiteke ez dela goela kondenarik.

Hasiera batean, Justo Arretxeak Urdazubiko Udalariei eta J. M. eta M. J. Labayen anai-errebeiei sartutako helegitearen bidez, 2006ko urtarrilaren 20ko plenoan Dantxarinearako eremu komertzial bati buruz azterketa zehatza egitea eskatzen zuen udal-erabakia baliogatu egin zuen Nafarroako Auzitegi Kontentzioso-Administratiboak. Baina ez aitzineko Udala eta ez Andres Diharasarry alkate ohia ere ez dira zigortuak izan.

Geroztik, epaiaren kontra Labayen anai-errebeek aurkeztutako kasazio-helegitea ere onartua izan da. Beraz, aferak epaitegien esku segitzen du momentu honetan.

LA VILLA
JATETXEA
IGANTZI • Tfno: 948 63 72 90

HEBERRI
ETXEN
ERANTZEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
Tf. 0569642519
Maïon eta Véronique
SARA

ZUBIONDO
Jatetxea
lagardotegia jatetxe
Alasta karrika
BERA NAFARROA

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA
300m perfume markak ezagunenekin, usain onak, kosmetikoak...
Euskal Herriko preziorik hoberenak
EGUNERO IREKIA
Tel: (0034) 948 599 400 - URDAZUBI

SARA

Denboraldi ona egin ondotik, errugbiko bi taldeak finalerdietan gelditu dira

Aspaldiko partez bi taldeak finalerdietara sailkatu dira

Xan HARRIAGUE

Lehen taldeak Laba-tuten kontra galdu zuen, 13 eta 10. Norgehiagoka polita egin zuten, baina 3 punturengatik ez ziren finalera pasatu. Partidan berehala sartu ziren, eta hasiera haien alde izan zen, baina momentu batez bi jokalaria galdu zituzten txartel hori eta xuri batengatik. Landestarrak ez zuten aukera galdu, eta puntuak eskuratu zituzten. Sarata-rrak luzaz 13 eta 3 aritu ziren gibeletik, eta 5 minutu gelditzen zirela, entsegu bat markatzea lortu zuten 3 puntura hurbilduz. Aitzinera pasatzeko aukera izan zuten 4 zigor ostikada izan baitzituzten, baina suertea ez zen haien alde izan, eta finalerdia bere horretan gelditu zen. Bigarren tal-

deak narbarmenago galdu zuen, 21 eta 3, Hermenaurka. Landestarrak sarata-rrak baino gehiago izan ziren.

Denboraldia bukatu bada ere, Esteban Barneix entrenatzailearen erranetan, sasoin ona izan da. «*Bi taldeak finalerdietara sailkatzea lortu dute eta ez da gutxi. Lehen taldea finalera pasatu bazen aparta izan zen, baina gauzak horrela dira*». Barneixek ez dio bigarren taldeari merezimendurik kendu. «*Genuen taldearekin horraraino arribatzea oso baikorra da. Gaizki hasi ginen, baina itzulerako partidetan oso ongi aritu dira*». Heldu den denboraldiari begira, etenaldia eginen dute, eta uz-tail hondarrean hasiko dira entrenamenduekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Pala txapelketa bukatu da

Apirilaren 26an bukatu zen Pleka trinketeak antolatzen duen pala txapelketa. Aurtengoan ez zen herriko txapelketa izan, baina horregatik finalen ondoko bazkaria ez zuten huts egin. Lehen mailan, urruñarren arteko partida izan zen. Ladebat eta lthurbisquek 50 eta 42 irabazi zieten Bergerot eta Halsoueti. Bigarren A mailan final parekatua izan zen, baina azkenean Bonnet eta Elizalde puntu batengatik nagusitu ziren Ortzi eta Ibarbururen aurka (50-49). Bigarren B mailan, Sein eta Jakaxuri nagusitu ziren Miura eta Fourcaden aurka (50-38). Hirugarren mailan, azkenik, txapela Jauretxe eta Troundayentzat izan zen Arburua eta Pelletra menpean hartuta (50-37). Argazkian pala txapelketako txapel-dunak eta txapeldunordeak ageri dira trinketeko jabeekin.



igogailuen instalazioa
 Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)
 Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810
 suteia@suteia.com



Gremio guztiak koordinatuz eta proiektuaren ardura hartuz, zure igogailu instalatzen dizugu

MON OSTATVA



Dantxarinetik
2 km-tara

ТАВAKO-DEHДА
АНЗАН-БОРДА · ВРДАЗВБИ

Egunero irekia 10:30etik 02:30era

Uxoa





OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
 Espezialitatea parrillan erretako jakietan
 Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labean errea,
 goxo goxoa!

Ordoki Industrialdea
 Tfnoa: 948 453 403
 31713 ARIZKUN

SENPERE

Mintzaira gutituen inguruko legea eginen du Frantziako Gobernuak Konstituzioa aldatu gabe

Poulou eta Grenet diputatuek ez dute hitza hartu Asanblada Nazionaleko debategan

Franck DOLOSOR

Frantziako Gobernuak ez du aldatuko Konstituzioaren bigarren artikulua, Errepublikako hizkuntza frantsesa dela dioena, baina euskara bezalako mintzaira gutituz lege bat eginen duela hitz eman du. Aipamen hau gan den astean egin zuen kultura ministroak hizkuntza gutituei buruzko eztabaidaren kariatat Asanblada Nazionalean. Lurralde mintzairak goraitzeaz gain, ministroak argitu zuen frantsesa defendatu behar dela bertze hizkuntzak ahanzi gabe. Eztabaida historikoa Gobernuak berak sortu zuen eta hiru oren

iraun zuen. Poulou eta Grenet Lapurdiko diputatuek ez zuten hitza hartu debategan, Jean Lassalle barnekaldeko ordezkariak, aldiz, bai. Kolore guzietako diputatuak mintzaira gutituen alde agertu ziren «*aberastassuna*» direlakoan, eta ez baitote kalterik egiten Frantziako batasunari.

Gaurko egunean, 78 mintzaira daude Frantziako Errepublikan eta herritarren %10ak hizkuntza gutitu bat menperatzen du. Orain arte, 52 lege proposamen egin dira parlamentuan mintzaira hauen aitopenaren alde, baina proposamen hauek ez dutesekula emaitzik eman,



ARTXIBOA

Uholdeen lehen urteurren gazi goxoa

Helbarrungo kanpalekuko jabeak kexu dira azkenean ez baitute Barnier diru kutxatik zentimo bakar bat eskuratuko. Horren berri eman du berriki Senperen prefetak. Hego Lapurdiko herri elkargoaren bitartez, eremu publikoa alokatzea proposatuko zaie jabeei. Bertzalde, iazko uholdeetan kalteak jasau zituzten herritarren artean sentimendu arrunt desberdinak daude. Batzuek diote asegurantzengandik kalte ordainak izan dituztela eta bertzeek laguntza tikiarekin gelditu direla. Nehork ez du ahanzen, ahatik, nolako elgartasun kate zabala sortu zen makur haundiei buru egiteko.

Konstituzioak mugatzen baitu egoera aldatzea eta koofizialtasuna ematea, euskarari konparazionean. Europako Batasunak 1992an idatzi zuen mintzairaren euro ituna sinatu zuen Frantziak 99an baina Gobernuak ez du sekulan berretsi. Konstituzio kontseiluak dio ezin dela hori egin Konstituzioa aldatu gabe. Lurralde historikoetako diputatu batzuek aldaketaren alde bozka lezakete bai-

na 577 ordezkarietatik gehingoak baiezkoaren alde bozkatea ezinezkoa da egun. Gan den asteko debategan, diputatu arrunt gutik parte hartu zuen.

Asanblada Nazionaleko eztabaidak interesa piztu zuen Frantziako xoko ainitzetan eta lpar Euskal Herriko euskaltzaleek ere hurbiletik segitu zuten batzuek historikotzat hartu duten solasaldia. Euskaltzaleen arte-

an zuhurtzia da nagusi halere, lehenago hitz eder ainitz entzun baita euskararen alde. François Mitterrand presidente sozialistak hitz eman zuen hizkuntza gutituei ofizialtasuna emanen ziela, baina gero laster ahanzi zuen zin egin zuena.

Horiek oro gogoan, ederki iragan da gan den igandean Herri Urratsen 25. besta herriko aintzirearen inguruan.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerrika S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA



EZKONTZAK

Elias Castillo Andresena eta **Ana M^a Gartzia Begue**, Legasakoa eta Buruzabalekoa, martxoaren 8an Legasan.
Joseba Andoni Andiarena Elizalde eta **Idoia Villanueva Rodriguez**, Doneztebekoa eta Ezkurakoa, apirilaren 19an Legasan.
Fco Jabier Telletxea Sukuntza eta **Marta Ezkurra Oteiza**, Leitzakoa eta Oiategikoa, apirilaren 26an Oieregin.



SORTZEAK

Hanna Maite Guallan Quimbiamba, Elizondokoa, apirilaren 18an.
Julen Juanikotena Borda, Arizkungoa, apirilaren 20an.
Irati Neol Burlada, Elizondokoa, apirilaren 25ean.
Xabier Urrutia Etseberri, Elizondokoa, apirilaren 30ean.
Itsasne Altsua Oronoz, Berakoa, apirilaren 17an.
Kandela Brianzeau Salanueva, Narbarteakoa, apirilaren 21ean.
Amets Jauregi Flores, Doneztebekoa, apirilaren 22an.
Nerea Sarratea Amigorena, Donamariakoa, apirilaren 24an.
Olaia Sarratea Amigorena, Donamariakoa apirilaren 24an.
Aimar Otxandorena Mitxelena, Lesakakoa, apirilaren 19an.
Lilia Hearn Mentaberri, Zugarramurdiakoa, apirilaren 24an.
Iraia Zubiaurre Agirre, Zugarramurdiakoa, apirilaren 30ean.
Eneko Sagartzazu Latasa, Sunbillakoa, apirilaren 15ean.
Jon Ander Etxebeste Fuentes, Zubietakoa, apirilaren 29an.



HERIOTZAK

Elbira Iturralde Barberena, Elbetekoa, apirilaren 27an, 96 urte.
Saturnino Gonzalez Arenal, Igantzikoa, apirilaren 27an, 87 urte.
Juana Mendegia Maritxalar, Lesakakoa, apirilaren 27an, 79 urte.
Francisco Oiartzabal Matxikote, Doneztebekoa, apirilaren 28an, 82 urte.
Francisco Javier Gaston Hernandez, Lesakakoa, apirilaren 29an.
Joaquin Sarratea Gamio, Arizkungoa, maiatzaren 2an, 67 urte.



Jaione MUTUBERRA MENDIKOA

Narbarten, 2006ko maiatzaren 6an
II. URTEURRENA

*Seguru urte aunitz pasatuko direla,
 eta hau bigarrena bertzerik ez dela.
 Baina Jaione, jakintzazu beti gure
 artean egongo zarela.*

ZURE FAMILIA



Alfonso ARIZTEGI ALDABE

Urrotzekoa, Lesakan hil zen, apirilaren 7an

*Hainbertze maite zenituen mendietan
 geratuko dira zure izena eta izana*

ZURE FAMILIA

Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten eta gure saminarekin bat egin guzti, mila esker.



Jose BERGARA ALMANDOZ

Arantzan hil zen, apirilaren 24an, 82 urte zituela

*82 udaberrian
 eman digun umorea
 82 udaberrian
 loratu den landarea
 joan egin da gure atautxi
 gizon alai dotorea
 baina bihotzean leku bat dugu
 beti zuretzat gordea.*

ZURE FAMILIA



Noelia ARIZTIA *Doneztebeko judoka*

ARGAZKIA: GOIZALDE URDANPILLETA

• Noelia Ariztia, 21 urteko judoka doneztebarra bigarren izan zen apirileko azken aste hondarrean Madrilen jokatu zen Espainiako judo txapelketan.

• 23 urtez beheitiko eta 63 kiloz azpiko kategorian parte hartu du eta iaz bezalaxe, Isabel Puche valentziarraren kontra galdu zuen finala.

• Halere, arras kontent dago judoka doneztebarra. Izan ere, iaz baino txapelketa hobea egiteaz gain, aurten egin duen lana selekzioan sartzeko baliagarria izan zaio. Lehen aldiz nazioartean lehiatzeko aukera izanen du.

«Europako txapelketan parte hartzea litzateke orain nire helburua»

Goizalde URDANPILLETA

Noelia Ariztia doneztebarra, berte neska eta mutiko aunitz bezala, haurra zela hasi zen judoan, zortzibederatzi urte zituela. Baina aunitzek utzi egiten duten bitartean, Noeliak kirol horretan segitu zuen, Oskar Mingia irakaslearen erranetara.

Gaur egun, 21 urterekin, elite mailako judoken artean dago. Iruñeko Larrabide Teknikazio Zentroan ematen du astea, entrenatzen eta ikasten. Egunero entrenamendu pare bat egiten du, goiz eta arratsalde, Joku Olinpikoetan parte hartuak diren bi entrenatzaileekin. Asteburuetan, aunitzetan bederen, konpetizioak izaten ditu han eta hemen. Aurtengoan, Indurain Fundazioak eliteko kirolariei ematen dien beka ere jaso du, entrenatzen eta hobetzen segi dezan. Noeliaren ustez, denetarik behar da judoka ona izateko: «*Entrenamendu aunitz, teknika, indarra, erresistentzia, burua ere inportantea da... Denetarik!*».

«**Sakrifikazio aunitz egin behar dira goian egon nahi baduzu, egunero entrenatu, orduak sartu... Baina emaitzek laguntzen dutenean errazago da**»

Hainbat domina irabaziak ditu txapelketa ezberdinetan. Azkenekoa, Madrilen, Espainiako txapelketan, 23 urtez beheitiko eta 63 kiloz beheitiko kategorian azpitxapeldun izan zen, zilarrezko domina eskuratuz, iaz bezalaxe. Aitzinetik, kategoria berean, Espainiako iparraldeko sektorean txapeldun izan zen Erreterian. Nafarroa, Euskadi, Aragoi eta Errioxako judokak aritu ziren lehian.

«KIROL GOGORRA DA JUDOA»

Noelia Ariztiaren erranetan, «*nahiko kirol gogorra da judoa eta sakrifizio aunitz egin behar dira. Goian egon nahi baduzu, egunero entrenatu behar duzu, orduak sartu... Baina emai-*

tzek laguntzen dutenean errazago eramaten duzu».

Joan den urtean azpitxapeldun izan ondotik, Erreka elkartearen omenaldia jaso zuen. Aurten, berte sari bat ere izanen du, selekzioak aukeratu baitu eta nazioartean aritzeko modua izanen duelako. «*Ranking batean bigarren nago orain eta bi lehenbizikoak kanpora joanen gara konpetitzera, nazioartean. Irail aldera, puntuazio gehien duenak parte hartuko du Europako txapelketan. Hor egoten saiatuko naiz!*».

Jendeak ez duela judoa ezagutzen uste du Noeliak: «*Arte martziala dela badakite, baina ez konpetitzeko modua, puntuatzekoa, entrenamenduetan egin beharden lana...*». Laguntzak dituen arren, kirol honek bizi bizitza ezinezkoa iruditzen zaio Noeliari: «*Nahiz eta ordu aunitz sartzan ditugun, ez dago lan bat bezala ordaindua. Familiaren laguntzarekin segitzen dut, baina denborarekin berte lan batean hasi beharko dut*».

MENDIA

Arantza, Baztan eta Sarako mendi itzuliak eginen dira heldu diren igandeetan

Ibilbide luzeko zirkuituak izanen dira baina txoko politak ikusteko aukera eskainiko dute

ttipi-ttapa

Mendian ibiltzea maite dutenek aukera ezin hobea izanen dute datorzen igandeetan, Arantza, Baztan eta Sarako Mendi Itzuliak eginen baitira bata bertzearen ondotik.

ARANTZAKO ITZULIA MAIATZAREN 18AN

Eskualdeko itzulia bi urtetik behin egiten den Arantzako itzuliarekin hasiko dute ibiltariak. Ekaitza elkarteak antolatutako Arantzako Mendi Itzulia igande honetan, maiatzaren 18an eginen da. Herriko plazatik abiatu eta leku berean emanen zaio ibilbideari akabera. Bitartean, Arrata errekatik jautsiz, Aranibar base-ria, Unanu, Itsaszelaia, Izu, Oilargata, Ibintza, Ekaitza, Illurdi, Mairubaratzeta eta Zepuruko tontorrek pasatuko dituzte parte hartzaileek. Guztira 30 kilometroko itzulia izanen da eta Mendaurrera joateko hautua egiten dutenek postuak paratuko dira. Desnibela, berriz, 1.550 metrokoa izanen da. Ohi bezala, ibilbidean hornidura eta osasun zerbitzuak eskaintzeko postuak paratuko dira.

Ibilbidean parte hartzeko izen-ematea 6:30etik 8:00etara eginen da, 10 euro ordainduta. Informazio gehiago 617 23 9361 eta 647 759140 telefonoetan.

BAZTANGO IBILALDIA MAIATZAREN 25EAN

Baztango Mendigoizaleek antolatutako Baztango XV. Mendi ibilaldia maiatzaren 25ean eginen da, Arraiozen hasi eta bukatuko dena. Izen ematea eta irteera Arraiozko frontoian izanen dira, 7:00etatik 7:30era. Aurtengo ibilaldiak Baztandik kanpo, Bertizarana, Sunbilla eta Bertizko Jauregiko lurak ere zeharkatuko ditu. Izen ematearen truke 10 euro ordaindu beharko dira. Ibilbidearen luzera 34 kilometrokoa da eta desnibela 1.800 metrokoa.

Arraioztik abiatuz, hauek izanen dira ibilbidean igaroko diren lekurik garrantzitsuenak: Perotxeneko Borda, Auzkue mendia, Oronoz-Mugairi, Enaburuko baserria, Arralde, Iri-soko Borda, Legasa, Oteixon, Suspiro lepoa, Iñarmeaka, Paretazar Aizkolegi, Plazazelai, Arakango lepoa, Larraztu eta berriro Arraioz. Bidean janaria eta osasun zerbitzua eskainiz postuak egonen dira.


SARAKO ITZULIA EKAINAREN 1EAN

Sarako XII. Mendi Itzulia ekainaren 1ean iraganen da Axuria mendizale elkarteak antolatuta. 45 kilometroko ibilbidea izanen da, eta 2.200 metroko malda duena. 7:00etatik 8:00etara bitartean, Saran ha-


siko da eta Suhalmendi, San Inazio, Iturriarreta, Larrun, Lizuniaga, Ibanteli, Lizarrieta, Saiberri, Uriko erreka, Atxuria, Zugarramurdi eta Istilarten bar-

na ibiliz, berriz Sarara itzuliko da. Izen emateak egunean berean eginen dira, abiatu aitzinetik, 6:30etik goiti Sarako kiroldetegan, 12 euro ordainduz. Ibilbi-


dea egiteko guttienez 9 ordu eta gehienez 12 ordu beharko dira. Xehetasunak www.axuria.mon-site.orange.fr helbidean edo turismo bulegoan (0033) 0559542014.



Arantzako mendi itzuliak 30-32 kilometroko ibilbidea izanen du.



Baztango mendi itzulia 34 kilometrokoa izanen da.



Sarako mendi itzuliak 45 kilometroko luzera izanen du.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttiipi.net (agenda)

IKASTAROAK

AMAIUR

Maiatzaren 19tik 30era, informatika ikastaroa. Xehetasunak 20. orrialdean.

HITZALDIK

LESAKA

Maiatzaren 20tik ekainaren 6ra, *Oinarrizko trebetasunak eta bizipen emozionala seme-alaben hezkuntzan* hitzaldia. 10:00etatik 12:00etara Kasinon, Irain Guraso Eskolak antolatuta.

ETXALAR

Maiatzaren 24an, mendiari eta zuhaitzei buruzko hitzaldia. Xehetasunak 11. orrialdean.

DANTZAK

IGANTZI

Maiatzaren 17an, Rocamador taldearen dantza saioa, 20:30ean.

GOIZUETA

Maiatzaren 24an, Oberena dantza taldearen emanaldia, 20:00etan.

IKUSKIZUNAK

ARANTZA

Maiatzaren 24an, moda desfilea Aterpen, Amaia ile apaindegiak antolatuta.

TAILERRAK

LESAKA

Maiatzaren 31n, haurrentzako esku tailerra Arranak antolatuta. 11:00etan Komentuko kanpan.

ASTE KULTURALAK

LEITZA

Maiatzaren 17tik 25era, Aste Kulturala. Xehetasun gehiago 18. orrialdean.

TELEBISTAKO TXOKOA



Eskualdeko gasnategiak ttiipi-ttapa telebistan

MAIATZAREN 16KO ERREPORTAJEAN

Esnearen produktuak lantzeko ohitura haundia dago gure eskualdean, eta batez ere, gaztak egiteko. Bertako esnearekin egindako gaztak ugariak dira, eta horietatik batzuk merkatuan daudenak dira. Horietako bi dira Sunbillako Lizun eta Baztandarra Kooperatibaren ekimenez, berriki merkaturatu den Baztangoa markako gazta. **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK** ere bi gasnategi hauen eguneroko lana hurbilagotik ezagutu nahi izan du, eta eurengana jo du. Lizun gasnategiko Arkaitz Vicente eta Baztandarra Kooperatibako kudeatzailea den Xabi Riparekin egon da eta egunero nola lan egi-

ten duten erakutsiko digu. Ortziral honetan, maiatzak 16, ikusgai izanen dugu **TTIPI-TTAPAN**.

ARANTZAKO MENDI ITZULIA

Gainerakoan, igande honetan Arantzako Mendi Itzulia egingen da eta **TTIPI-TTAPA TELEBISTA** ere han ibiliko da. Arantzako mendi kaxkoko irudirik ederrenak biltzen. Bertalde, Donezteben asteburu honetan izanen den Basurde Biker Bestako irudiak ere jasoko dira, baita Lesakako Musika Banden Alardekoak eta Trinitate Eguneakoak ere. Horiek eta bertze hainbertze astelehenetik aitzinera ikusgai **TTIPI-TTAPA TELEBISTAN**.

DISKAK



Zure begiek

Mikel MARKEZ

ELKAR, 2008

20 urteko ibilbidea zaila da disko xume batean laburtzen. Kantariak kanta onak egiteko gustua eduki behar du, baina baita bere kanten artean entzulearen gustukoak aukeratzeko ere. *Zure begiek* kanta enblematikoak ematen dio hasiera bilduma honi. 18 urterekin egindako grabazio zaharrari soka-akorde berriek dotorezia eta sakontasuna ematen diote. Gainerakoan, *Zertarako mugak jarri*, *Gizartearen eraikuntza*, *Imajinatzen zaituteta* bertze kantu bikainak hobetu egin dira urteekin. Egitura sendoko kantuak ziren seinale, gero ere iradokorrak izaten jarraitzeko eginak. Baztuetan grabazio originalak mantenduz, bertze kanta batzuk berriro grabatu ditu. Disko alai da, samurra izateari utzi gabe; sakona, desenfadorik galdu gabe.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (apirilaren 25etik maiatzaren 2ra bitarteko prezioak)



ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 25,00 € (-7,00)

Zerri gizena
1,120 € kilo. (-0,025)

Zerramak:
0,410€ Kg/bizirik. (=)



BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,10 (=)

1.koa 3,80 (=)

2.koa 3,20 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,20 (=)

1.koa 3,90 (=)

2.koa 3,30 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze ttiikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:

urruak 130,00 (=)

idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,10/3,20

Zaldi-behorrak: 1,73/1,93

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 4,90/5,50

8-10 kilokoak: 3,90/4,40

JAKIN BEHARREKOAK

Argiaren gaueko tarifaren erabiltzaileei bere garaian ordaindu zutena itzuliko zaie

Uztailaren 1etik aitzinera gaueko tarifa desagertu egingen da

Iberdrolaren gaueko tarifa uztailaren 1etik aitzinera desagertuko da, gauez argia erabiltzeagatik %60rainoko beherapenak izateko aukera ematen zuten tarifa, hain zuzen. Hala onartu baitzuen Espainiako Ministerioak.

Irache Kontsumitzaile Elkartearen arabera, gaueko tarifa kentzea bere garaian eskaintza horren aldeko apostua egin zuten kontrako neurria da, metagailuak erosi behar izan baitzituzten. Gaueko tarifa horren erabiltzaileak tarifa berri batera pasatuko dira zuzenean —bertze tarifaren bat aukeratu ez badute—, Irache-ren hitzetan, «*ordutegi aldetik diskriminatzailerik*» den eskaintzara. Tarifa berri horrekin elektrizitate merkeagoa den ordu kopuruak goiti egin du, baina ordu horietan



Gaueko tarifa kentzea kontsumitzaileen kalterako dela salatu izan du Irachek.

dauden beherapenak murriztu egingen dira. Gisa berean, gainerako orduetan gainprezioak goiti egingen du.

Espainiako Ministerioak ebatzitako Errege Dekretuaren ondorioz, Iberdrolak izan ere, Iberdrolak tarifaren murrizteko erabakia, Irache-ren ustetan,

«*kontsumitzaileen kalterako neurria dena*».

Horrez gain, sartzeko eskubidea zela eta, erabiltzaileek ordaindu zutena itzultzeko eskatu zion Irachek Iberdrolari. Izan ere, Iberdrolak tarifaren murrizteko erabiltzaileei sartzeko eskubideaga-

tik 70 eta 150 euro kobratu zizkieten. Espainiako Industria eta Energia Ministerioaren menpe dagoen Energia Batzorde Nazionalari gaiaren inguruko txostena ere eskatu zioten Irachetik.

Badirudi eskatutakoak baduela bere ordaina. Martxoaren 15eko Errege Dekretu berriaren bidez, gaueko tarifaren bezeroek ez diete eskubideengatik elektrizitate konpainiei ordaindu behar. Energia Batzorde Nazionalak ere eman du bere erantzuna eta horren ondorioz, tarifa honen bezeroek ez dute sartzeko eskubideengatik ordaindu behar, ez eta bertze sartzeko eskubideengatik ere.

Ordainketak itzultzeko eskaera ere egingina du Irachek, eta konpainia elektrikoak itzuliko duela adierazi omen du.

LIBURUAK



Zulo bat uretan

Iñigo ARANBARRI

SUSA, 2008

Itoizko urtegia betetzeko herriak husten ari dira Longidan eta Artzibarren 2003ko udaberrian. Bizidunekin batera kanposantuetako hilak ere atera egin behar ordea. Horretan ari da Maite Andueza antropologo-forentsea, Oscar Iriarte etorkin argentinarraren laguntzaz, bertakoak izan zirenen gorputzkinak berreskuratzen urak betirako irentsi baino lehen. Aranbarriren bigarren nobelak Imanol Arellano du narratzailea, historiaren zabortegeiak iren-

tsi aurretik edertasunak zikindutako istorioak biltzea maite duen kazetaria. Denbora kontra jarri zaion ikerketan murgildua, jakin dituenak idazteko premiak larrituta dauka, lurpean ezkatututa dagoena azalera ekarri ezean erreportajeko kontakizunak ezin frogatuzkoak bihurtuko baitira urpean. Historia hurbilak akuilatutik, ahanzturaren eta egin beharrekoen artean dabilta pertsonaiak, egunerokotasunak batetik bertze- ra daramatzen bitartean.

AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

MENDI ATERALDIAK

BAZTAN

Maiatzaren 18an, Arantzako Mendi Itzulira ateraldia antolatu du Baztango Mendigoizaleak.
Maiatzaren 25ean, Baztango Mendi Itzulia. Xehetasunak 29. orrialdean.

ARANTZA

Maiatzaren 18an, Arantzako Mendi Itzulia. Xehetasunak 29. orrialdean.

ANTZERKIAK

ZUGARRAMURDI

Maiatzaren 17an, *Munduan zehar* ikuskizuna, Kuko, Truko eta Bolenwaider taldearen eskutik. 17:00etan Sorginen Museoa.

BERA

Maiatzaren 24an, *Hor al zaude?* antzerkia, 22:00etan Kultur Etxean.

LESAKA

Maiatzaren 17an, *Gemika* ikuskizuna, Keinu-Leihoak jardunaldien barne. 23:30ean Ikastolako frontoian.
Maiatzaren 24an, *Mexico lindo y rebelde* kale ekintza, Keinu-Leihoak jardunaldien barne. 20:00etan Plaza Zaharrean.

KONTZERTUAK

ARANTZA

Maiatzaren 17an, Keltiar Aldea taldearen kontzertua 20:00etan frontoian.

ELIZONDO

Maiatzaren 31n, Mikel Urdangarin eta Gaztelu Abesbatzaren kontzertua, 23:00etan Lur dantzalekuan.

ERATSUN

Maiatzaren 17an, Doneztebeko Mendi abesbatzaren kontzertua, 19:00etan elizan.

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar da.
Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da
(nahi izanez gero argazkiarekin).
8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-Ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituko
106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

LANA

301. Eskariak
302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

401. Eskaintzak
402. Akademiak

MOTORRA

501. Salerosketak
502. Tailerrak

ANIMALIAK

601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

DENETARIK

701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

HARREMANAK

801. Agurrak

ADOS

ELIZONDO.
- 2. eskuko pisuak, pisu berriak, lur eremuak eta etxeak salgai.
DONEZTEBE.
- 2. eskuko pisuak, pisu berriak, lur eremuak eta etxeak salgai.
BERA-LESACA.
- 2. eskuko pisuak eta lur eremuak salgai.
NARBARTE.
- 2. eskuko pisuak eta lur eremuak salgai.
IGANTZI.
- Lur eremua salgai.
SUNBILLA.
- Familia bakarreko etxebizitzak salgai.
DONEZTEBE.
- Partzela urbanizatua salgai.
ELIZONDO.
- Partzela urbanizatua salgai.
DONEZTEBE INGURUKO HERRIETAN.
- Pisuak, apartamentuak, baserriak, etxeak, bordak eta lur eremuak salgai.
BAZTAN-BIDASOA.
- Bordak, baserriak eta herriko etxeak salgai. Moldatuak eta zaharberritu beharrekoak.
PROMOZIO BERRIAK.
ARIZKUN.
- 2 eratako familia bakarreko etxebizitzak lur eremuarekin.
IRAIZOTZ.
- Pisu berriak lorategiarekin edo terrazarekin, trasteroa eta aparkalekua.
AGOITZ.
- Familia bakarreko 20 etxebizitza, lur eremuarekin.
ARIZKUN.
- Nabe eta lur eremu industrialak.
ORONÓZ-MUGAURI.
- Bi familiako etxebizitzak lur eremuarekin.
ELIZONDO.
- Adosatua lorategiarekin.
NARBARTE.
- 2 eta 3 gelako pisuak, trasteleku eta aparkalekuarekin.
INFORMA ZAITEZ!
948 451 841 / 948 580705
www.ados-inmobiliaria.com

ANZABAL INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.
- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.
IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.
ZUGARRAMURDI.
- Baserria salgai 50.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurraekin salgai.
Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

ETXEBIZITZAK 101 Saldu

LESACA. 229 m²ko familia bakarreko etxearen proiektua, lurraekin eta lizentziakin

andueza
INMOBILIARIA

NARBARTE:
- 65m²ko pisuak, 20m²ko garaia, 100m²ko banatzarekin.
30.500.000 Pta.

GAZTELU:
- Bi familiako etxebizitza salgai, 300m²ko lorategiarekin. 42.000.000 Pta.

ORONÓZ:
- Estreinatzeke dagoen apartamentuak salgai. 150.000€
- 140m²ko pisuak salgai. 120.000€
- Estreinatzeke dagoen 115m² etxebizitza beheko solairuarekin. Lorategiarekin 210.000€

ELIZONDO:
- 130m²ko 3 txilet salgai. Solairu bakarrekoak, eskalatorak gabeak.
Oso erosak. 400m²ko lur eremuarekin.

LEGASA:
- LECCASA, 58m²ko pisuak salgai, 3 logela, konfina eta 3 balkoi. Daxinua drain duela urte bietan. 28.500.000 Pta.

BASERRIAK ERE SALGAI
T. 948 23 88 16
M. 620 20 87 87
www.habitat24.com/andueza

salgai. Eremu urbanizatua ura, argia, urzikinen putzua... Promotorerik interesatua egonez gero, permutarako prest. 40 milioi Pta. ☎678 526091.



ZUGARRAMURDI. Bifamiliarentzako etxebizitza salgai, bakoitza 170m²koa. 3 logela, 2 bainugela, sukualdea, egongela-jangela, itxitako garajea. 600m²ko lorategia.

Baztango
promoción inmobiliaria

PROMOZIO BERRIAK:
BERA: Zaharberritutako eraikin tradizionalan, 2 eta 3 logeletako etxebizitzak, igogailuarekin. Laster emanen dira.
DONEZTEBE: Herrigunean 1, 2 eta 3 logeletako etxebizitzaren promozioa egiten da laster, gutxi eraberritutako eraikinean. Erreberbatzeko zerranda irekia.
IRURITA: Familia bakarreko etxebizitza berria, lorategiarekin. Diseinu pertsonalizaturako aukera.
IRURITA: 1, 2 eta 3 logeletako etxebizitzaren promozioa egiten da laster, gutxi eraberritutako eraikinean, lur eremu pribatuarekin eta igogailuarekin.

OBRATAN DAUDEN PROMOZIOAK:
ETXALARREN eta LESAKAN.

ETXEBIZITZA SALDU BEHAR DUZU?

- Zure etxebizitza baloratuko dugu merkaturako preziorik onena eskura dezazun.
- Etxebizitzaren salmenta dela eta, egon daitezkeen gorabehera fiskalak zurekin aztertuko ditugu.
- Plan komertzialik onena egingen dugu.
- Gure datu basea eta bertze agentzia kolaboratzaileenak kontsultatuko ditugu antzeko eskaerak ikusteko.
- Zure pisuak doan iragarriko dugu.
- Salerosketaren kontratua kudeatuko dugu, kontratua erredaktatuz eta sinatuz.
- Eskrituratan sinatu behar denean, Notaritzara lagunduko dizugu, sortu daitezkeen adozeln zalantza edo arazo argitzeko.

EZ IZAN ZALANTZARIK ETA DEITUI

HERRIGUNEAN JABETZAKO AGENTZIA GAREN ALDITIK,
LAGUNTZEN AHAL ZAITUGU, A.P.I. 358.

Kattonberri karrika, 4 Tfn. 948 630552
31780 Bera, Navarra Faxa 948 630106

DONEZTEBE: Erreberbitutako 115 m²ko pisuak salgai. 3 logela, 2 bainugela eta trasteroa. Erreberbitu eta erreberbitu gabea.
630 948271

BULDAIN INMOBILIARIA

Leiza, Lekurberri, Ultzi eta Ezkuran etxebizitza berriak salgai.
Anzabal, 37 beheko • LEITZA
T948 510 034 • 948 478 615

BIDASOALDEAN ETA BORTZIRIETAN
errentan emateko pisuak behar ditugu

Zuretzako gutxi gabe kobratuko dizula segurtasun serioarekin eta diskretzio osoa.
Baztango S.L. 948 630002 / 609 704777

295.000 euro. ☎615 744433.
IRUN. Hirigunean etxebizitzarako egokitutako beheko solairua salgai. Sukalde amerikarra, 2 logela, berogailua eta kanpoko terraza. Zaharberritua. 85m² ditu etxeak eta 8m²ko terrazak. 29.500.000 pza (177.300 euro). Negola, 2 bainugela, sukualdea, egongela-jangela, itxitako garajea. 600m²ko lorategia. ☎636858512.
IRUN. Hiri erdialdean pisua salgai. 2 logela, egongela,

sukualdea tresna guztiekin, bainugela, berokuntza eta igogailua. ☎637 559152.
DONEZTEBE. Aparan inguruan pisu berria salgai. Aukera ona. ☎617 461649.



DONEZTEBE. 100m²ko pisua salgai, Zazpigerutze auzoan. ☎639 184210.
BERA. Bidasoa karrikan eraberritutako etxebizitza sal-

gai. Norbere gustura jartze-ko aukera. ☎661 577137.

DONEZTEBE. 80m²ko pisua salgai. ☎615 561458.

DONEZTEBEINGURUAN. Etxe adosatu polit bat salgai. Sartzeko prest. ☎666044176.

ETXALAR. 180m²ko pisua salgai, eraikin tradizionalen. Egoera onean. ☎609 708797/ 948 630552.

ELIZONDO. Herrigunean apartamentua salgai. Prezio negoziagarria. ☎609 708797/ 948 630552.

LESAKA. Herrigunean zaharberri beharrekotxe bizi-tza salgai. Prezio negoziagarria. ☎609 708797/948630552.

ETXEBIZITZAK 103 Errentan emateko

LESAKA. Pisua errentan emateko. Lau logela eta denek kanpora ematen dute. ☎628 329762.

BERA. Agerra auzoan pisua errentan emateko. Igozailua, berogailua eta 3 logela. ☎659 963960.

DONEZTEBE. Pisu mobilizatua errentan emateko. ☎699 798207.

ETXEBIZITZAK 104 Errentan hartzeko

DONOSTIA. Antiguoz auzoan lau neska ikasleko pisua errentan hartu nahi dute. ☎690 766952.

ETXEBIZITZAK 105 Etxe konpartituak

IRUÑA. San Juan auzoan pisua osatzeko pertsona bat behar da. Logela errentan ematen da. ☎650 254203 (goizez deitu).

GARAJEAK/LOKALAK 107 Saldu

LESAKA. 20m²ko lokal komertziala salgai. Albistur 43.

☎659 609678.

TWIN PEAKS. Familia euskaldun batek estudio bat errentan emanen luke epe motzarako. San Frantzisko-ko Unibertsitatearen ondoren, leku lasaia eta autobus geltokitik hurbil. Harrera pribatua, bainugela, hozkailua, ohe-sofa, telebista... *avpasf@gmail.com*.

BERA. Herrigunean, 52m²ko garajea salgai. ☎609 708797/ 948 630552.

IRUN. Hirigunean ostatu salgai, zabalik dagoen dantzaleku baten ondoan. ☎686 062963.

BERA. 60m²ko ganbara eta 47m²ko garajea salgai. ☎607890923.

ZERBITZUAK 205 Zurginak



LANA 302 Eskaintzak

SUNBILLA. Kanpinean egunerok lan egiteko pertsona bat behar da. ☎948 450540.

LESAKA. Baserri batean emakumea behar da adineko bat zaintzeko eta janaria prestatzeko. Goizez, 8:30etik 12:30era. ☎948 637968.

IGANTZI. Emakumea behar da gida-baimenarekin arratsaldeetan haurrak zaindu eta etxeko lan batzuk egiteko. Aseguratu eta baldintza interesgarriak. ☎646 485794/ 649 939282.

Trailer batean ibiltzeko **lan-gilea** behar da, lantegi barreranean egunean zazpi orduz lan egiteko eta asteburuak

libre. Bortziriak edo inguru-koa izan dadila ahal bada. ☎630 989415.

SUNBILLA. Gidabaimena duen pertsona bat behar da asteburuetan banaketa-lanak egiteko. ☎690 961616.

MOTORRA 501 Salerosketak

Xsara HDI 1.9-90 zaldi salgai. Egoera onean, 2004ko urriakoa. ☎650 948330.

Nissan Terrano II 2.7 TDI salgai. Prezio negoziagarria. ☎679 432522.

Gas gas Enducros 250 motorra salgai, 2004koa. Trajearekin eta oso egoera onean. ☎615 736586.

2002ko **Opel Zafira** salgai, diesela, 85.000 km. Egoera onean, 8.500 euro. ☎659 515638.

125 cc motoa erosiko nuke, KTM markakoa nahia-go. Eta **Motor Hispania** markakoa salgai, 50 cc eta urtebetekoa. ☎948599267.

Nissan Almera beltza 2.2 dci salgai, 112 zaldikoa. 4 urte eta hagitz egoera onean. ☎679 381091 (18:00-etatik aitzinera deitu).

MOTORRA 502 Tailerrak

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK



ANIMALIAK

TALLERES SANTESTEBAN
948 450282 • DONEZTEBE

ESKAITZAK
Traffic 9 plazakoa, 2007koa
Clio III 1.5 DCI, 2007koa
Espace 2.0 DCI, KM0
Kangoo 1.5 DCI, 2007koa
Suzuki Santana, 2006koa

BIGARREN ESKUKOAK
Volkswagen Golf 1.9 DTI 110 CV,
Citroen Saxo 1.9 D, Renault Laguna
2.2 D, Peugeot 406, Clio Confort 1.5
DCI, Megane Coupé 1.9 DTI 100
CV, Citroen C-15 1.8 D, Peugeot
307 1.6, Peugeot 307 1.6 110 CV.



601 Emateko

Zakurkume bat oparitzeko. ☎637 990197.

Pastor-aleman arrazako **zakurkumeak** oparitzeko. ☎948 630048.

ANIMALIAK 602 Salerosketak

Setter arrazako **hiru zakurkume** salgai. Maiatzaren 22an hiru hilabete eginen dituzte. Txertatuak eta parasituak kenduak. 200 euro. ☎661 821645.

Border-Collie arrazako **zakurkume batzuk** salgai. ☎651 074865.

Leongo mastinak salgai, 2 hilabete, arrak eta emeak aukeran. Etxe eta abereak zaintzeko aproposak. Txertatuak eta parasituak kenduak. ☎637 466110.

3 urteko **2 ahari** mutur gorri salgai. Bat adarrarekin,

bertzea gabe. ☎948451469.

DENETARIK 701 Galdu/aurkituak

LESAKA. Kaja urdin ilun batean betaurrekoak galdu dira. ☎948 637543.

LESAKA. Oilagor zakur zuria desagertu da apirilaren 12an. ☎948 637543.

DONEZTEBE. Apirilaren 20ko goizean, sakeleko telefonoa galdu da autobus geltokian. Nokia N70 beltza. ☎606 126331.

DENETARIK 702 Salerosketak

Pianoa salgai, Kawai markakoa. Oso ongi zaindua, urtero errebisioak pasatua. ☎687 957072.

Sagardoa egiteko 60 zentimetroko **dolarea** eta 150 litroko **barrika** salgai. ☎620 208874 (20:00-22:00).

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,31€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



ARANTXA SESE AGARAK 10 urte bete ditu maiatzaren 12an. Zorionak Josetxo, Maddi, atta, ama, Argi eta familia guztiaren partetik. A! Sartu baloia kanastan!



ZUBIETA LOREA SANTESTEBAN GOIZUETAK 4 urte bete ditu maiatzaren 15ean. Auniz urtez familiaren eta bereziki Mikelen partetik.



JOSEBA PETRIRENA ZIDANEK 25 urte bete ditu maiatzaren 2an. Zorionak Gureko *tarjeteroari* Irene eta Jonen partetik.



NICOLAS GARCIA ARANTZADIK maiatzaren 20an 4 urte beteko ditu. Zorionak! Asko maite zaitugu! Ama, Juampa, Daniela eta Mugerdiko guztiak.



NICOLAS GARCIA ARANTZADIK 4 urte beteko ditu maiatzaren 20an. Segi orain bezain deabru-txo izaten! Muxu asko. Belasko eta Hondarribiko aiton-amonak.



MIGUEL UBIRIA ALTZATE lesakarrak maiatzaren 19an 3 urte beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partetik.



ALONA ETXARTEK maiatzaren 13an 6 urte bete ditu. Zorionak printzesa atta, ama eta bereziki Iraiaren partetik.



ALONA ETXARTEK maiatzaren 13an 6 urte bete ditu. Zorionak guapa! Segi beti bezain alai! Etxekoan partetik.



BIHOTZ ALUSTIZA arantzarrak 2 urte bete ditu maiatzaren 12an. Zorionak eta muxu pila bat atta, ama eta bereziki Uxueren partetik.



AMATXIK eta **IBANEK** maiatzaren 15ean eta 7an urteak bete dituzte. Zorionak zuen familiaren partetik!



MIGUEL eta **ANEK** maiatzaren 19an eta 29an 3 eta 16 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu haundi bat Olga eta Javierren partetik. Ongi pasa eguna!




MIGUEL eta **JON ANDERREK** maiatzaren 19an eta ekainaren 5ean hiru urte beteko dituzte. Zorionak eta ongi pasa eguna zakarrak! Zorionak Gemma, Olga eta Aneren partetik.



NAHIA PAGOLA ROMANO beratarrek maiatzaren 29an 4 urte beteko ditu. Muxu haundi bat gure sorgintxoari atta, ama eta bereziki ahizpa Olatzen partetik.



NAHIA PAGOLA ROMANO beratarrek maiatzaren 29an 4 urte beteko ditu. Muxu haundi bat ataxi-amatxi eta izeba-osaben partetik.



BERAKO IORITZ GOIENETXE MARITXALARREK 3 urte beteko ditu maiatzaren 19an. Zorionak bihurri eta muxu pila-pila familiaren eta bereziki Oierren partetik.



ALMANDOZKO OIHAN AGERRERI bere zortzigarren urtebetetzean zorionak eta muxu pila bat bere aite, ama eta arreba Uxoaren partetik.




AIMAR ARRETXEAK 4 urte beteko ditu maiatzaren 19an. Zorionak eta muxu haundi bat Aurtizko eta Zigako familiaren partetik.



MAIALEN GORRIZ AGIRRETXEK maiatzaren 15ean 2 urte beteko ditu. Zorionak eta ongi pasa Lesakako familiaren partetik.



SUNBILLAKO JANIRE APEZTEGIAK 12 urte bete ditu maiatzaren 12an. Zorionak eta muxu haundi bat Iradi eta Maialenen partetik. A, eta ongi pasa Irunberri!



ASIER LARRALDE KORTA lesakarrak maiatzaren 7an 5 urte bete ditu. Zorionak familia guztiaren eta bereziki Ainhoaren partetik.




OIHAN APEZTEGIAK 3 urte beteko ditu maiatzaren 24an. Zorionak June, Janire, Ibai, Ekiñe, Iradi, Maialen, Oier, Egoi, Xuban, Ane, Elkaiz eta Eneiten partetik.



JONE ETXEPARE ELRIRO beratarrek maiatzaren 17an 7 urte beteko ditu. Zorionak Olatz, Izaro eta familiaren partetik. Muxu bat gure neskatxa politikari.



XABIER SANZBERRO etxalartarrak maiatzaren 14an 11 urte egin ditu. Auniz urtez familiaren partetik.



SUNBILLAKO AMATXI IXABELEK urteak bete ditu maiatzaren 13an. Zorionak eta muxu bat Janire, Xuban, Ibai, June, Uxuri, Iradi eta Maialenen partetik.

BEGIRALEEN LAN-POLTSA

BEGIRALE ARDURADUNA:

- Batxilergoa edo baliokidea
- Aisialdi eskola batek egiaztatutako begirale titulua.
- Euskaraz jakitea (hitz egiteko eta idazteko gaitasuna izatea).

BEGIRALEA:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
- Euskaraz jakitea (hitz egiteko eta idazteko gaitasuna izatea).

ZERRENDAREN ERABILERA:

- Bereziki, udaleku irekietarako begiraleak kontratatzeko erabiliko da.

ESKAERAK:

- Curriculumak maiatzaren 31ko 12.00ak baino lehen aurkeztu behar da. Informazio gehiago jasotzeko deitu beheko telefonora, edo idatzi beheko e-postara.



Bortziriako Euskara Mankomunitatea • 948634125 • euskara@bortziriak.org • Herriko Plaza 7, 31790 ARANTZA



· PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHOEN FABRIKAZIOA · SALMENTA ETA INSTALAZIOA



- NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK
- DISEINU ETA MODELO EZBERDINAK
- BANAKAKO SOLUZIOAK
- ISOLAMENDU TERMIKO ETA AKUSTIKOAK
- ENERGIA AURREZPENAK

www.betikopvc.com

betikopvc@terra.es

Ordoki industrialdea z/g · Tel.: 948 453 259 · Faxa: 948 453 423 · 31713 ARIZKUN (Nafarroa)

Lur

maiatzak **17** larunbata

EROTIK

GAU BEROENA LUR ARETOAN!!

01:00 10€ kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte



maiatzak **24** larunbata

LUR D JOTAK | Ritxi & Nash

01:00 8€ kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

maiatzak **31** larunbata

Gaztelu Abesbatza
+

Mikel Udangarin

23:00 10€

Laguntzalleak:



01:00 etatik aurrera 8€ kontsumizio batekin 03:30ak arte

ekainak **7** larunbata

RUMBA CATALANA ROOTS

Papawa

00:30

8€ aurretik 10€ takillan



BISITA EZAZU
GURE WEB ORRIA

LURELIZONDO.COM

Heineken



ETORRI BAINO LEHEN, PASA ZAITEZ HERRIKO TABERNETATIK